

Euskal Herriko Unibertsitatea
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea - Gasteiz (Araba)
Gizarte Langintza Gradua

GIZARTE POLITIKAK GAZTE

ESPARRUAN

Irakasgaia: **Gizarte Politika**
Irakaslea: **Eguzki Urteaga Olano**

EGILEA: Idoia Torrente Armentia
[Bide ez-jarraia]

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
1.1. Gaiaren delimitazioa	3
1.2. Gaiaren garrantzia	3
1.2.1. Kontzeptu nagusien definizioa	3
1.3. Gaiaren problematika	4
1.4. Hipotesiak	5
1.5. Metodologia	5
1.6. Eskemaren aurkezpena	6
2. Garapena	6
2.1. Diagnostika	6
2.2. Legedia	21
2.3. Planak, programak eta egitasmoak	31
2.4. Erakundeak	42
2.5. Gizarte langilearen lana	45
2.6. Erabiltzailearen profila	47
2.7. Ebaluaketa	48
2.8. Gomendioak	51
3. Ondorioak	52
4. Bibliografia	55
5. Eranskinak: Elkarrizketa	58

1. Sarrera

1.1. Gaiaren delimitazioa

Esan daiteke, gazteria jopuntuan kokatua egon dela, are gehiago, pandemia hasi zenetik, komunikabideetan, politikarien ahoetan zein kalean egon daitezkeen elkarrizketa arruntetan gazteria eta haren jokabideak presente egon dira. Hala ere, gazteek bizi duten errealitatea ez dago hain zabaldua, maiz bizi dituzten arazo ugari baztertuak izanda. Horren adibide ditugu, gazteriaren sektoreak jasaten duen laneko prekarizazioa, emantzipatzeko gaitasun urria edota eza, haien gurasoekiko edota instituzioekiko duten dependentzia eta abar luze bat.

Aurretik aipatutakoagatik, beharrezkoa ikusten dut gazte esparrura bideratutako gizarte politikak aztertzea. Bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Gazte Planaren nondik norakoak aztertuz, honela, indargune zein ahuleziak identifikatuz eta etorkizunera begira proposamen bat eginez; hari beretik, aurretik landu izan diren Gazte Planak analizatuz.

1.2. Gaiaren garrantzia

Aipatu bezala, gazteria iritzi publikoaren jo puntuan dago. Kolektibo honek kriminalizazio handia jasaten du, Covid-19 birusaren hedapenarekin etorritako pandemiak modu nabarmen batean handitu duena. Testuinguru honetan, gazte esparrua gehien bat jai-giroarekin lotu izan da, esaterako, poliziaren jazarpenarekin, kalean egindako kale-edanarekin, liskarrekin, neurri murriztatzaileak ez errespetatzeagatik...

Kontrara, ez zaio bizitzen gauden krisialdi honen beste aurpegiari begiratu, izan ere, gazteen langabezia-tasa handitu egin da, lan-tenporalen kopuruak gora egin du, soldaten devaluazioa...

Gainera, kriminalizatua den kolektiboa izan arren, esan dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoan gazte mugimendu ugari daudela, izan, gazte esparruan zehazki, emakumearen auziarekin lotutako mugimenduetan, lan-esparrura bideratutako lan eremuetan...

1.2.1. Kontzeptu nagusien definizioa

Gazte esparrura bideratutako gizarte politikak analizatzeko ezinbestekoa da, zenbait kontzeptu argi izatea. Horretarako, txosten osoan zehar erabiliko ditudan kontzeptu gakoak azalduko ditut. Lehenik, gizarte politikak, honela, hauen helburua, aztergaia eta zenbait aldagai ulertzeko, bigarrenik, gazteria, aztertuko dugun sektorearen gaineko ulerkerak ezberdinak ezagutzeko eta honela, esparru honek bizi duen errealitatea modu integralago batean ulertzeko, eta azkenik, gizarte zerbitzuak, gazteriarekin lotutako gizarte arazoei aurre egiteko beharrezkoak direlako.

- **Gizarte Politikak:** Helburua ekintza sozialaren bidez pertsonen ongizatea lortzea da. Horregatik, praktika multzo bezala Zientzia Sozialen aztergai bilakatzen da. Diziplina independente bat baino, analisi partikularreko eremu batean kokatzen da, gizarte ongizatearen eremuan, bertan hurbilketa eta metodo anitz existitzen diren, zeinengatik zaila suertatzen den definizio zehatz bat formulatzea. Ongizatea produzitua, antolatua eta banatua den testuinguru sozial, politiko, ideologiko eta instituzionala esploratzen ditu, eta aldi berean politika publikoen, merkatuko erlazioen zein norbanako edo kolektiboen ongizatea handitu edo murrizteko erlazio ez-monetarioen aspektu oro barne-biltzen ditu.

Horrez gain, Gizarte Politika Sektorial bat azaltzea beharrezkoa da, hau ministerio edo kontseilu jakin batetik sortzen den lege edo araudi bat da, jarduera, prestazio, zerbitzu, administrazio, baliabide eta instalazioen estruktura antolatu bat eratzen duelarik, gizarte arazo ezberdinei soluzioa emateko.

- **Gazteria:** Kontzeptu honek ulerkera eta definizio askotarikoak ditu, horregatik, gizartean gehien entzuten direnak eta interesgarrienak iruditu zaizkidanak aipatuko ditut. Alde batetik, adin tarte batean kokatzen diren momentuko belaunaldiak daude, honela fase hau heldutasunera pasatzeko prozesu bezala identifikatzen da. Beste alde batetik, perspektiba positiboago bat planteatuz, gazteriaren kontzeptuaren eraikuntza kolektiboarekin guztiz lotua dago, “los jóvenes generan su propia construcción. Esto transforma radicalmente su deber ser joven presente en función de su deber ser adulto futuro” (Taguenca Belmonte, J. A. 2009).

Horrez gain, azken ulerkerak, gazteriaren kontzeptua esparru biologikotik harago eramaten du, hortaz, aldagai soziologiko eta politikoei erreparatzen die, beti ere, testuinguru ezberdinak erreparatuz. Beraz, azken ulerkera honen arabera, egungo gizarte eredu kapitalistan, gazte izateak aldagai batzuk jarraitzen ditu, batik bat, gazte merkatu berria, komunikabide masiboen hazkunde nabarmena eta kapitalismoagatiko modernizazio prozesu berriak (Patiño Torres, J. F. 2009).

- **Gizarte Zerbitzuak:** Gizarte arazo zehatzei bideratutako programa eta baliabideak dira, hari beretik, gizarte ekintza lantzen dute gizartearen sustapenera bideratuz, honela, gizarte beharrez arduratuz. Eskumenak hiru eremuetan banatuak daude: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak, normalean, administrazio publikoan kokatuak dira.

1.3. Gaiaren problematika

Pandemia hasi zenetik etorritako krisialdiarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan gazteriaren bizitzaren esparru guztietan emandako egoeraren okertzearen aurrean, bada gai Gazte Plana haien beharrianak asetzeko?

1.4. Hipotesiak

Hipotesiak planteatzerako garaian, txosten osoan zehar landuko ditudan gai ezberdinei helduko diet. Hala ere, garrantzia edo interesaren arabera, hipotesi nagusia eta bigarren mailako hipotesiak banatuko ditut, lehenengoan, sakontasun gehiago bilatuz.

❖ Hipotesi nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Gazte Planak zenbait ondorio positibo izan arren, orokorrean, gabezia nabarmenak ditu, ahulezia edo gabezia hauek gazteriaren beharrianak asetzeko gaitasun urria izanik.

❖ Bigarren mailako hipotesiak:

- Instituzioek Gazte Planaren zabalpena aurrera eramateko baliabide gutxi eskaintzen dituzte, honela, gazteriaren zati handi batek ezjakintasun handi bat izanik.
- Egungo gazteak familia zein instituzioekiko, Gazte Plana kasu, dependenteak dira. Honek, haien bizi-ereduan ezegonkortasuna ekarriz.
- Pandemiarekin batera etorritako krisialdiak eragin negatiboa izan du gazteriarengan. Honen aurrean, gazte esparruari bideratutako gizarte politikak ez dira nahikoak izan.

1.5. Metodologia

Gazteriari bideratutako gizarte politiken inguruko txosten hau osatzeko, eta zehazki, informazio osatu eta askotarikoa jasotzeko hainbat metodo erabili ditut. Hiru baliabide nagusi erabiliko ditut.

Alde batetik, **zenbait informazio iturri**, beharrezkoak diren datuak eskuratu ahal izateko eta esparru teorikoa modu sakonago atean osatzeko, hala nola, legedia eta bestetik, ikuspuntu eta hausnarketa ezberdinak ezagutzeko.

Beste alde batetik, datu zehatzagoak jasotzerako begira, batik bat, grafiko, diagrama edota estatistikei bideratuta, **lan dokumentala** erabiliko dut.

Bukatzeko, informazioaren gehiengoa eskuratzeko, gazte esparruan dabilen langile batekin egindako **elkarrizketa** erabiliko dut. Modu honetan, sektore honekin harreman zuzena duen pertsona baten ikuspuntua jasotzeko aukera paregabea izango dut. Hortaz, baliabide interesgarriena dela esan dezakegu, finean, egungo errealitatearekin lotuen dagoen jakintza izango baita.

1.6. Eskemaren aurkezpena

Sarreran txostenean landuko dudan auziaren inguruko aurrerapen bat egin ondoren, bigarren puntuan, hau da, garapenean, gazteriari bideratutako gizarte politiken nondik norakoak modu sakon batean aztertuko ditut.

Horretarako, lehenik eta behin, gazteriaren errealitatea ezagutzeko, diagnosia burutuko dut, modu honetan, gazte esparruaren egoeraren bilakaera, krisialdiaren eragina eta egungo situazioa ezagutuko ditut. Bigarrenik, auziarekin lotutako legediari eutsiko diot, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte esparruarengan eragina duten aldagai ezberdinei erreparatuz. Beste alde batetik, esparru honetara bideratutako planak, programak eta egitasmoak, eta hari beretik, hauek aurrera eramaten dituzten erakundeak aztertuko ditut. Jarraiki, gizarte langileak zentzu honetan jokatzeko duen papera eta egiten duen lana analizatuko dut, eta modu berean, erabiltzailearen profila zein den definituko dut. Garapenarekin amaitzeko, nire ebaluaketa propioa egingo dut, txostenean landutako aldagai ezberdinak kontuan hartuz eta gomendio ezberdinak plazaratuko ditut.

Txostenari amaiera emateko eta prozesu osoan zehar landutako jakintzak kontuan izanik, ondorioak planteatuko ditut. Horretarako, hasiera batean sarreran plazaratutako problematika zein hipotesi nagusi zein bigarren mailako hipotesiak erabiliko ditut.

2. Garapena

2.1. Diagnosia

Diagnosiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gazteek bizi duten egoeraren nondik norakoak ezagutuko ditut, horretarako, gazteei eragiten dieten hainbat esparru aztertuz. Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen gazteriaren hurbilpen bat burutzeko, demografia eta biztanleria aztertuko ditut. Gerora, gazteriaren egoera ekonomikoa, eta hortaz, lan-esparrua erreparatuko ditut, izan ere, honek zuzenean eragiten du gainerako esparru guztietan. Baldintza ekonomikoen hari beretik, gazteen bizitzetan garrantzi handikoa den hezkuntza auziari eutsiko diot. Amaitzeko, gazteriarekin eragin zuzena duten hainbat azpi-esparru aztertuko ditut: etxebizitza eta emantzipatzeko aukera, aisialdia eta kultura eta azkenik, balore eta jarrerak.

Datu bilketa aurrera eramateko zenbait taula eta grafikoz baliatuko naiz, modu honetan, informazioa modu bisualago batean interpretatzeko aukera egongo da.

2.1.1. Biztanleria eta demografia

1.TAULA: 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria EAEn, sexua eta lurralde historikoaren arabera

		15-29	15-19	20-24	25-29	-
EAE, guztira	Guztira	287274	95735	91863	99676	146348
	Gizonak	49460	46900	49988	140926	46275
	Emakumeak	44963	49688	43009	14306	13488
Araba	Guztira	15215	21785	7368	6853	7564
	Gizonak	21224	6938	6635	7651	146663
	Emakumeak	48317	46662	51684	74710	25069
Bizkaia	Guztira	23723	25918	71953	23248	22939
	Gizonak	25766	97602	33112	31713	32777
	Emakumeak	49853	17023	16324	16506	47749
Gipuzkoa	Guztira	16089	15389	16271		

Iturria: euskadi.eus (2018)

Taula honen bidez, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria gaztearen lurralde historiko eta sexu araberako antolamendua ikus dezakegu. Orokorrean, 287.274 biztanle daude 15 eta 29 urte bitartekoak, horietatik gehiengoak, 25-29 urte dituztelarik, 99.676 daude. Jarraiki, 15-19 urte bitartekoak daude, 95.735 izanik. Azkenik, 20 eta 24 urte bitarteko gazteak daude, 91.863 dira. Generoari dagokionean, gizonezkoak (49.460) emakumezkoak (44.963) baino gehiago dira. Amaitzeko, lurralde historikoaren baitako banaketari erreparatuko diot, zentzu honetan, Bizkaian dago 15-29 urte bitarteko biztanle kopuru handiena, 23.723 biztanle daudelarik, ondoren, Gipuzkoa kokatzen da 16.089 biztanlerekin eta amaitzeko, Araba dago, 15.215 biztanlerekin.

2.TAULA: Atzerriko nazionalitatea duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren, lurralde historikoen eta jatorrizko kontinentearen arabera

		Guztira	Gizonak	Emakumeak
Euskadi	Totala	36290	17868	18422
	Europa	7918	3790	4128
	Afrika	9496	5927	3569
	Amerika	15745	6267	9478
	Asia+Ozeania	3131	1884	1247
Araba	Totala	6317	3151	3166
	Europa	1219	621	598
	Afrika	2223	1170	1053
	Amerika	2231	986	1245
	Asia+Ozeania	644	374	270
Bizkaia	Totala	17758	8778	8980
	Europa	3547	1610	1937
	Afrika	4587	3130	1457
	Amerika	8233	3190	5043
	Asia+Ozeania	1391	848	543
Gipuzkoa	Totala	12215	5939	6276
	Europa	3152	1559	1593
	Afrika	2686	1627	1059
	Amerika	5281	2091	3190
	Asia+Ozeania	1096	662	434

Iturria: euskadi.eus (2018)

Bigarren taula honetan ikusi dezakegunez, Euskal Autonomia Erkidegoan 15 eta 29 urte bitarteko eta atzerriko nazionalitatea duten biztanleria totala 36.290koa da, horietatik, gehiengoa emakumezkoa delarik, 18.422, hala ere, gizonezkoak gertutik jarraitzen dituzte 17.868 biztanlerekin. Kontinentei dagokionean, Ameriketatik etorritakoak (15.745) nabarmenki gehiago dira, ondoren, Afrikatik emigratutako gazteak daude (9.496), jarraiki, Europatik lekuz aldatutakoak (7.918) eta azkenik, ezberdintasun nabarmen batekin Asia eta Ozeanatik etorritako gazteak daude (3.131). Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoei dagokienean, gehiengoa Bizkaian kokatzen da, 17.758 gazte daudelarik, gerora, Gipuzkoan dagoen kopurua da handiena, 12.215 direlarik eta bukatzeko, Araban 6.317.

3.TAULA: 15-29 urte bitarteko gazteak, egoera zibilaren eta sexuaren arabera, 1991n eta 2001ean (%)

	1991			2001		
	Ezkongabea	Ekondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ekondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
Araba						
Gizonezkoak	87,9	11,8	0,3	92,6	7,1	0,3
Emakumeak	77,7	21,4	0,9	86,0	13,3	0,7
Bizkaia						
Gizonezkoak	89,2	10,5	0,3	93,5	6,2	0,3
Emakumeak	79,5	19,7	0,8	86,8	12,4	0,7
Gipuzkoa						
Gizonezkoak	90,6	9,2	0,2	93,0	6,8	0,2
Emakumeak	81,2	18,1	0,7	85,7	13,7	0,6

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE.

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

Taula honen bidez, 1991 urtetik 2001 urtera egoera zibilaren esparruan egondako bilakaera ikus dezakegu; honen bidez, gazteen bizi eredian egondako aldaketak ikus ditzakegu. Lurralde historikoari erreparatzen badiogu ikus daiteke lurralde guztietan ezkongabeen kopuruak gora egin duela, bereziki, Arabari eta Bizkaiari dagokionean.

2.1.2. Egoera ekonomikoa eta lan-arloa

4.TAULA: Euskal AEko 16-29 urte bitarteko biztanleen jarduera, enplegu eta langabezia tasak, sexuka (%). 2005-2020

	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa	Langabezia tasa
Guztira			
2005	60,7	54,6	10,1
2006	59,2	54,9	7,3
2007	57,4	54,1	5,7
2008	57,3	53,1	7,3
2009	56,3	47,0	16,5
2010	54,3	44,4	18,4
2011	54,0	43,6	19,1
2012	49,7	38,3	23,0
2013	51,4	35,5	29,0

2014	53,5	38,0	29,5
2015	51,4	37,1	27,9
2016	49,1	37,5	23,7
2017	47,8	39,8	16,7
2018	47,7	40,3	15,5
2019	48,4	39,8	17,8
2020	47,0	36,5	22,2
Gizonak			
2005	63,3	57,7	8,8
2006	61,1	56,8	7,0
2007	61,9	58,2	6,0
2008	59,7	55,0	7,9
2009	58,5	47,7	18,5
2010	56,2	44,4	21,0
2011	53,9	42,6	21,0
2012	49,5	37,4	24,4
2013	49,9	33,7	32,4
2014	53,1	36,2	31,8
2015	52,0	37,0	28,8
2016	49,5	36,9	38,0
2017	49,5	43,2	15,7
2018	47,9	40,4	15,6
2019	48,9	40,3	17,7
2020	46,7	35,6	23,6
Emakumeak			
2005	57,9	51,2	11,6
2006	57,2	52,9	7,6
2007	52,5	49,7	5,3

2008	54,5	50,9	6,6
2009	53,8	46,3	14,0
2010	52,3	44,3	15,2
2011	54,0	44,8	17,1
2012	49,9	39,2	21,5
2013	53,0	39,3	25,8
2014	53,9	39,2	27,2
2015	50,7	37,1	26,9
2016	48,6	38,0	21,9
2017	45,9	37,6	18,0
2018	47,5	40,2	15,4
2019	47,8	39,3	17,8
2020	47,3	37,5	20,9

Iturria: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gazteriaren panorama. EUSTAT (2021)

Taula honetan Euskal Autonomia Erkidegoan 2005 urtetik 2020 urtera jarduera, enplegu eta langabezia-tasan egondako bilakaera azter dezakegu. Orokorrean, jarduera- eta enplegu-tasak gainbehera nabarmen bat izan dutela ikus dezaket, gainera lehen urtetik (2005) azken urtera (2020) aldaketa nabarmena egon dela esan dezakegu: jarduera-tasari dagokionean 2005 urtean 60,7koa zen zifra eta 2020 urtean 47koa eta enplegu-tasari dagokionean, 2005 urtean 54,6koa zen eta 2020 urtean 36,5koa. Hari beretik, langabezia-tasak urtez urte gora egin du, esparru honetan ere alde nabarmena delarik, 2005 urtean, 10,1 zifra zegoen eta 2020 urtean, 22,2, beraz, 15 urtetan zifra bikoiztu egin da. Beste alde batetik, sexuaren arabera erreparaturaz gero taulari, emakume edota gizon izateagatik ezberdintasun nabarmenik ez dagoela aipatu dezaket.

5.TAULA: 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eskura duten hileroko diru-kopurua, lanbide-egoeraren arabera

	Ikasten	Lanean	Ikasten eta		Etxeko lanetan	Beste egoera bat
			lanean	Langabezian		
60 euro baino gutxiago	41.6	0.7	2.7	15.2	23	14
60 eta 300 euro artean	43.9	6.9	25.5	29.8	15.2	27.4
301 eta 600 euro artean	2.3	12.5	28.3	16.1	13.3	13.9
601 eta 900 euro artean	1.8	18.8	12.4	12.6	11.1	16.9
900 eurotik gora	3	53.6	24.9	13.3	16.9	13.8
Ed/Ee	7.5	7.4	6.2	13.1	20.5	14
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: euskadi.eus (2015)

Taula honen bidez, 15-29 urte bitarteko gazteek eskura dituzten hileroko diru-sarrerak azter ditzakegu, horretarako, lanbide-egoera aztertuz eta diru kopuru talde ezberdinei erreparatuz. Ikasten dauden gazteen artean, gehien batek, 60 eta 300€ artean jasotzen ditu (43,9), hala ere, oso gertutik 60€ baino gutxiago jasotzen dutenak daude (41,6) eta gutxienez 601 eta 900€ bitartean.(1,8) Gerora, lanean dauden artean, gehiengo batek (53,6) 900€tik gora jasotzen ditu eta gutxiengo batek 0,7 batekin 60€ baino gutxiago. Horrez gain, ikasten eta lanean dauden artean, gehiengo batek 301 eta 600€ artean ditu diru-sarreratzat, baina 60 eta 300€ artean eta 900€tik gora jasotzen dituztenak gertutik jarraitzen diete, gutxiengo batek 60€ baino gutxiago jasotzen ditu. Bestalde, langabezia egoeran aurkitzen diren artean, gehiengo batek (29,8) 60-300€ bitarte jasotzen ditu, gainerako guztiak maila antzekoetan kokatzen dira, gutxiengoak 601 eta 900€ artean jasotzen dituztelarik. Amaitzeko, etxeko lanetan jarduten duten gazteak daude, esparru honetan, gehiengoak 60€ bainoo gutxiago jasotzen ditu, gainera, arritzekoa iruditzen zait, gehiengo handi batek ez duela erantzun nahi izan, gainerakoak maila berdintsu batean kokatzen dira, gutxiengo batek 601-900€ bitarte jasotzen dituelarik. Aipatutako datuez gain, erantzun nahi izan ez dutenak daude eta beste egoera batean aurkitzen direnak, hala ere, orokorrean, ez dira maila altuak izan hauek.

6.TAULA: Pobrezia errearen tasa

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	16-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Pobrezia errearen tasa	9.2	9.4	9.1	11.2	9.4	7.4	8.8	12.4	4.9

Iturria: euskadi.eus (2018)

Seigarren taulari erreparatuz pobrezia errealaren tasa aztertu dezakegu, horretarako sexu araberako, adin-taldearen araberako zein Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoaren araberako bereizketa egiten da. Datu orokorrak 9,2 zifran kokatzen dira, baina generoaren arabera, gizonezkoen zifra emakumezkoena baino apur bat altuagoa da, lehenengoa 9,4koa eta bigarrena 9,1koa. Gerora, adin-tarteari dagokionean, pobrezia errealaren tasa altuena 16-19 urte bitartekoan gazteetan kokatzen da, ondoren, 20-24 urte bitartekoak, 9,4 batekin eta amaitzeko 25-29 urte bitartekoak 7,4 batekin, hala ere, hiru adin-tarteetan kopuru antzekotasun nabarmen bat dagoela esan dezaket. Pobrezia errealaren tasarekin amaitzeko, lurralde historikoak ditugu, datu altuenak Bizkaian (12,4) aurkitzen dira, ondoren, gertutik Arabak (8,8) jarraitzen du eta ezberdintasun handi batekin Gipuzkoa (4,9) legoke.

Aipatzekoa iruditzen zait, pobrezia errealaren tasak aurretik aipatutako datuen ondorio gisa baloratzen ditudala, izan ere, lan egoerak zein egoera ekonomikoak pobrezia errealaren tasa isladatzen du eta alderantziz. Hortaz, azken datu hau garrantzi handikoa dela esango nuke, gainera, datu esanguratsuak direla aipatuko nuke.

2.1.3. Hezkuntza esparrua

7.TAULA: Eskola uzte goiztiarraren tasa 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean

	2020
	Guztira
Euskadi	6,5

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

8.TAULA: Eskola uzte goiztiarraren tasa 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.
Gizonezkoak

	2020
	Gizonak
Euskadi	8,5

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

9.TAULA: Eskola uzte goiztiarraren tasa 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.
Emakumezkoak

	2020
	Emakumeak
Euskadi	4,3

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

Hiru taula hauetan, eskola uzte goiztiarraren tasa aztertu dezaket, lehengo taulan (7.TAULA) datu guztiak azter ditzakegu, bigarren taulan (8.TAULA) gizonezkoen datuak ditugu eta hirugarren taulan (9.TAULA) emakumezkoen datuak ditugu. Aipatzekoa da, sexu araberako bereizketa egiten ez den taulan datua 6,5ekoa dela. Beste alde batetik, sexu bidezko bereizketari erreparatzen badiogu, gizonezkoen datuak emakumezkoenak bikoiztu egiten dituzte, lehenengoak 8,5ekoak dira eta bigarrenak, 4,3koak.

10.TAULA: Goi mailako hezkuntzan titulazio duen 30 eta 34 urte bitarteko tasa

	2020
	Guztira
Euskadi	59,6

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

11.TAULA: Goi mailako hezkuntzan titulazio duen 30 eta 34 urte bitarteko tasa.
Gizonezkoak

	2020
	Gizonak
Euskadi	55,8

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

12.TAULA: Goi mailako hezkuntzan titulazio duen 30 eta 34 urte bitarteko tasa.
Emakumezkoak

	2020
	Emakumeak
Euskadi	63,3

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

Hiru taula hauen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan goi mailako hezkuntza titulazio duten 30-34 urte bitarteko pertsonak azter ditzaket. Orokorrean, kopurua altua dela esan dezaket. Lehenik eta behin, kopuru guztiari erreparatzen badiogu 59,6koa da, jarraiki, emakumezkoen kopurua daukagu, gizonezkoena baina kopuru handiagoa duena 63,3arekin, gizonezkoa aldiz, 55,8koa da.

2.1.4. Etxebizitza eta emantzipazio aukera

13.TAULA: 18 eta 34 urte bitartekoen emantzipazio tasa by Sexua, adin-taldeak eta lurralde historikoak eta Aldia

	2020
Guztira	35,1
Gizonak	29,8
Emakumeak	40,6
18-24 urte	3,1
25-29 urte	39,5
30-34 urte	72,2
Araba	36,2
Bizkaia	32,9
Gipuzkoa	38,1

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

Taula honen bidez, 18-34 urte bitarteko emantzipazio tasa azter dezakegu, guztira 35,1ekoa delarik. Aipatzekoa da, emakumeen zifra (29,8) gizonaenaren (40,6) oso gainera dagoela. Horrez gain, adin-tarteari dagokionean, ezberdintasun nabarmenak daudela agerikoa da, 30-34 urte bitartekoen tasa modu esanguratsu batean altuagoa da, 72,2arekin, jarraiki, datu nahiko bajuagoarekin 25-29 urte bitartekoak daude, 39,5eko tasa duena, azkenik, datu oso bajuekin 18-24 urte bitartekoak daude, 3,1eko tasarekin. Beste alde batetik, lurralde historikoari dagokionean, antzekotasun handiak daudela esan dezakegu, zifra altuenak Gipuzkoan (38,1) eta bajuenak Bizkaian (32,9) daudelarik.

14.TAULA: Emantzipatzeko batez besteko adina, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera by Sexua eta Lurralde Historikoa eta Aldia

	2019
Guztira	30,2
Gizonak	30,2
Emakumeak	30,2
Araba	30,6
Bizkaia	30,0
Gipuzkoa	30,3

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2019)

15.TAULA: Benetako adinaren eta emantzipatzeko adin idealaren arteko aldea by Sexua eta Lurralde Historikoa eta Aldia

	2020
Guztira	5,7
Gizonak	5,6
Emakumeak	5,9
Araba	6,4
Bizkaia	5,3
Gipuzkoa	6,1

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

Hamalagarren taula hamairugarrenarekin zuzenki lotuta dago, agerian gelditzen baita, emantzipatzeko tasaren adin-tarteari jarraiki, lurralde historiko guztietan zein sexu ezberdinetan 30 inguruan dagoela emantzipatzeko adina. Gainera, hamabostgarren taulan emantzipazioarekin aurki dezakegun arazo bat ikus dezakegu, izan ere, emantzipatzeko benetako adinaren eta adin idealaren artean, alde nahiko handi bat dago, 5-6,5 artean kokatzen direlarik zifrak.

16.TAULA: 18 eta 34 urte bitarteko lagun emantzipatuen arteko etxebizitzaren jabetza, sexua eta lurraldearen arabera by Sexua eta Lurralde Historikoa eta Aldia

	2020
Guztira	35,2
Gizonak	33,7
Emakumeak	36,4
Araba	37,6
Bizkaia	36,7
Gipuzkoa	31,7

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2020)

Etxebizitza eta emantzipazioarekin amaitzeko, 18 eta 34 urte bitarteko lagun emantzipatuen arteko etxebizitzaren jabetza aztertzeko datuak ditugu, zeintzuk sexuaren eta lurralde historikoaren arabera banatuak dauden. Guztira 35,2ko zifra daukagu, baina gainerako zifra guztiak berdintsuak dira. Sexuaren arabera, emakumezkoena gizezkoena baino apur bat altuagoa da, 3 inguruko ezberdintasunarekin. Azkenik, lurralde historikoaren arabera, antzekotasunak ere badaude eta ezberdintasun nabarmenena Gipuzkoa eta gainerako bi lurraldeen artean dago, lehengoan 31,7ko zifra dago eta Araban 37,6koa eta Bizkaian 36,7koa.

2.1.5. Aisialdia eta kultura

17.TAULA: Ekintza artistikoetan partehartzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak by Jarduera artistikoetan partehartzea, Aldia and Sexua, adina eta lurralde historikoa

	2021								
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Jarduera artistikoetan partehartzea	76,8	74,5	79,1	81,2	77,8	71,2	79,4	76,3	76,6

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2021)

Aisialdia eta kultura esparruari dagokion lehenengo taula honetan, ekintza artistikoetan parte hartzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen datuak aurki ditzakegu. Horretarako, sexu, adin-talde eta lurralde historikoaren arabera bereizketa egin da. Orokorrean, parte hartze maila altua dagoela azpimarragarria da, izan ere 76,8ko zifra ikus dezakegu. Beste alde batetik, sexu arteko ezberdintasunari erreparatuz gero, emakumezkoak gizonetzkoak baino gehiago parte hartzen dute, baina ez dago ezberdintasun agerikorik. Gainera, adin-taldeari erreparatuz gero esan dezaket gazteenak direla gehien parte hartzen dutenak, 81,2ko zifrarekin, jarraiki, 20-24 urte bitartekoak 77,8ko parte hartzea dute eta 25-29 urte bitartekoak 71,2ko parte hartzea dute. Lurralde historikoari dagokionean, antzekotasun handiak aurki ditzakegu, guztiak 76-80 bitartean daudelarik, datu altuenak Araban daude.

18.TAULA: Sare sozial ezberdinetako eguneroko erabilera, sexua eta adinaren arabera by Sare sozialak, Aldia and Sexua eta adin-taldeak

	2021							
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29		
WhatsApp	99,0	98,9	99,2	97,9	99,5	99,8		
Facebook	28,3	26,3	30,5	7,9	26,6	51,6		
Instagram	82,2	77,7	87,3	88,0	84,4	73,8		
Youtube	81,8	87,3	76,4	86,8	79,8	78,6		
Twitter	37,2	40,7	33,7	30,7	48,7	32,6		
Snapchat	13,0	11,4	14,8	26,2	8,8	3,2		
Spotify	71,2	69,2	73,3	72,6	74,3	66,6		
Tik Tok	27,1	22,1	32,4	49,4	20,3	10,3		
LinkedIn	27,9	29,1	26,6	6,6	34,8	43,8		
Tinder, Meetic, etab.	6,4	9,9	2,8	2,4	8,1	9,0		
Twitch	18,0	27,4	8,0	25,8	15,9	11,7		
Zoom, Meet, etab.	27,0	26,1	28,1	32,6	26,2	21,7		

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2021)

Taula honen bidez, sare sozialek gazteen aisialdian daukaten garrantzia agerian uzten dute, haien kulturaren parte direla esan dezakedalarik. Orokorrean, *WhatsApp* da gehien erabiltzen dena, 99ak erabiltzen duelarik, jarraiki, zifra altuekin ere, *Instagram* (82,2) eta *YouTube* (81,8) daude. Maila altu batean ere, *Snapchata* dago (71,2) eta gainerako sare sozial guztiak, kopuru baxuago batekin erabiliak dira. Gutxien erabiltzen diren sare sozialak ligatzekoak dira 6,4arekin, adibidez, *Tinder*. Sexu eta adin-taldearen arabera bereizketari erreparatuz gero, orokorrean aldaketa nabarmenik ez dagoela deritzot, nahiz-eta zenbait esparruetan, esaterako, *Twitch* sare sozialaren erabilerari dagokionean.

19.TAULA: Ziberjazarpena jasan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak by Ziberjazarpena, Aldia and Sexua eta adin-taldeak

	2021					
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29
Ziberjazarpena	3,3	3,9	2,7	4,5	3,2	2,2

Iturria: Gazteaukera. Euskadi.eus (2021)

Ziberjazarpenaren auzia egungo testuinguruan garrantzi handikoa dela deritzot, hortaz, zentzu honetan aurkitutako datuak ezinbestekoak dira. Orokorrean, 3,3ko zifra dago. Sexuari erreparatuz gero, gizonen (3,9) datuak emakumeen (2,7) baino altuagoak dira, eta adin-tarteari erreparatuz gero, aipatzekoa da, gazteen artean, hau da, 15-19 urte bitarteko artean, zifrak nabarmenki altuenak dira, 4,5 batekin, gerora, adin tartearen igo ahala zifrak jaitsi egiten dira, 20-24 urte bitartekoak 3,2 batekin eta 25-29 urtekoak 2,2koak.

2.1.6. Balore eta jarrerak

20.TAULA: Politikan oso edo dezente interesatutako Euskal AEko 15-29 urte bitarteko biztanleria, lurralde historiko, sexu eta adinaren arabera. 2000-2020

	2000	2004	2008	2012	2016	2020
Guztira	32,6	35,8	18,3	22,5	39,1	51,4
Araba/Álava	31,7	35,2	17,2	22,2	14,3	51,6
Bizkaia	30,7	35,9	16,7	19,2	44,0	51,7
Gipuzkoa	36,1	35,8	21,3	28,2	36,2	51,1
Gizon	34,6	39,2	20,9	25,5	42,5	54,0
Emakumea	30,3	31,8	15,6	19,5	35,6	48,7
15-19 urte	26,1	27,6	13,2	15,6	30,5	41,5
20-24 urte	35,9	39,0	19,9	23,1	44,4	58,7
25-29 urte	34,8	38,9	20,4	26,7	41,7	54,7

Iturria: Euskadi.eus (2021)

Hogeigarren taula honetan gazteen artean politikan dagoen interesa azter dezakegu, horretarako, lurralde historikoaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera bereiztu delarik. Gainera urte ezberdinetan egon den interesa ikus dezakegu, egondako bilakaera identifikatuz. 2000 urtetik 2020 urtera politikan interesa modu nabarmen batean igo dela adierazgarria iruditzen zait, izan ere, lehengo urtean 32,6koa zen eta 2020an 51,4koa, hala ere, adierazgarria iruditzen zait, 2008 urtean, beherakada nabarmen bat eman zela, urte guztietako zifra bajuenak jasotzen direlarik, 18,3ko zifrarekin, aipatzekoa dela deritzot, 2008 urtea krisi ekonomikoaren urtea izan zela. Lurralde historikoari dagokionean, antzekotasun nabarmenak jasotzen dira, hala ere, 2016 urtean Araban 14,3ko zifra dago, gainerakoekin alderatuta oso

bajua dena. Beste alde batetik, genero esparruari dagokionean, gizonezkoen artean interes gehiago erakutsi izan dela ikus daiteke, hala ere, zifra aldetik ez dago aldaketa nabarmenik. Amaitzeko, adin tarteari dagokionean, interes bazuena 15-19 adin tartean egon dela aipatzekoa da.

21.TAULA: Sexu bereko pertsonen ezkontzen aldeko Euskal AEko 15-29 urte bitarteko biztanleria, lurralde historiko, sexu eta adinaren arabera. 2008-2020

	2008	2012	2016	2020
Guztira	85,8	87,0	90,5	97,7
Araba/Alava	80,9	82,9	85,5	97,8
Bizkaia	84,3	87,6	91,5	97,8
Gipuzkoa	90,4	88,0	91,3	97,1
Gizon	80,7	82,1	89,1	97,3
Emakumea	90,9	92,2	92,0	98,1
15-19 urte	83,0	87,0	91,7	98,1
20-24 urte	86,3	88,5	92,6	97,8
25-29 urte	87,6	85,9	87,9	96,9

Iturria: Euskadi.eus (2021)

Taula honen bidez sexu bereko pertsonen ezkontzen aldeko iritzia azter dezakegu, 2008 urtetik 2020 urtera emandako bilakaerari erreparatuz, horretarako, lurralde historikoaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera bereizketa egiten da. Azpimarragarria iruditzen zait 2008 urtetik onarpen handiko iritzia izan dela sexu bereko pertsonen ezkontzen aldekoa, gainera, urtez urte, gorakada bat jasan dela aipatzekoa da. Lurralde historikoei dagokionean, ez dago datu aipagarririk, sexuari erreparatuz, emakumeen onarpena handiagoa izan dela ikus daiteke eta adin-tartearen arabera, antzekotasunak ikus ditzakegu.

22.TAULA: Bere burua ez-sinestun, ateo, agnostiko edo axolagabetzat duen Euskal AEko 15-29 urte bitarteko biztanleria, lurralde historiko, sexu eta adinaren arabera. 2000-2020

	2000	2004	2008	2012	2016	2020
Guztira	38,8	47,9 43,6	53,6	57,4	69,6	
Araba/Alava	40,2	45,6 46,3	45,6	47,5	76,2	
Bizkaia	39,6	48,7 39,8	49,5	59,6	65,8	
Gipuzkoa	36,7	47,7 49,0	64,0	58,4	72,7	
Gizon	44,0	53,2 48,0	55,8	59,6	73,4	
Emakumea	33,3	42,6 39,6	51,1	55,0	65,7	
15-19 urte	36,1	49,6 40,9	47,2	54,0	69,8	
20-24 urte	42,2	48,3 47,2	58,7	58,5	71,6	
25-29 urte	37,4	45,9 42,1	53,7	59,2	67,6	

Iturria: Euskadi.eus (2021)

Bere burua ez-sinestun, ateo, agnostiko edo axolagabetzat duen gazte kopuruari dagokionean, orokorrean, zifra altuak daudela esango nuke. Gainera, urteak pasa ahala, hau da, 2000 urtetik 2020 urtera, izaera gorakorra egon da jarrera honetan. Lehenik eta behin, lurralde historikoari erreparatuz gero, antzekotasun nabarmenak daudela esango nuke. Bigarrenik, sexuaren arabera, gizonezkoen zifrak emakumezkoenak baino altuagoak direla agerikoa da, hala ere, ez dago aldaketa nabarmenik ere. Bukatzeko, adin-tarteari dagokionean, antzekotasunak ere badaudela esango nuke.


23.TAULA: Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa. GAzteak emanadako emaitzak (16-29 urte) eta sexuen arabekoak (%)

	16-29 urte	EMAKUMEAK 16-29 urte	GIZONAK 16-29 urte
Ez da larria	0,2	0,5	0,0
Larritasun gutxikoa	1,6	0,5	2,7
Nahiko larria	17,7	17,5	18,0
Oso larria	80,4	81,6	79,3
Guztira	100	100	100

Iturria: Emakunde. Eusko Jaurlaritza (2012)

Taula honen bidez genero indarkeriaren larritasunaren inguruko iritziak azter ditzakegu, horretarako 16-29 urteko adin tarteari erreparatuz eta emakume eta gizonezkoen arteko bereizketa eginez. Gehiengo batek (80,4) oso larri bezala identifikatzen du emakumeen aurkako indarkeriaren auzia, hala ere, emakume gehiagok (81,6) gizonezkoen bainok (79,3). Hari beretik, nahiko larri bezala 17,7ak identifikatzen du, kasu honetan, alderantzizkoa ematen da, gizonezko gehiagok (18) emakumezkoen baino (17,5). Larritasun gutxikoa delaren iritziari dagokionean, guztira 1,6ko zifra daukagu, kasu honetan, gizonezkoen datuak 2,7koak emakumezkoenak baino dezente handiagoak dira, bigarren hauek 0,5ekoak direlarik. Azken datu bezala, indarkeria matxista ez larri bezala identifikatu dutenen iritzia dago, kasu honetan, osotara 0,2ko zifra dago, arrizkeoa dena, emakumeen zifra (0,5) gizonezkoena (0) baino altuagoa dela da.

2.GRAFIKOA: Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz gizonen duten sentsibilizazio-mailari buruzko iritziak. Eraitza orokorrak, sexuaren (*), eta adinaren (*) arabera. Batz besteko puntuazioa 0 eta 10 bitarteko eskalan



Iturria: Emakunde. Eusko Jaurlaritza (2012)

Azken grafiko honetan, emakumeen aurkako indarkeriaren iritzia ere jasotzen da, baina gizonen sentsibilizazio-mailari erreparatzen zaio, horretarako adin-tarte ezberdinak baloratzen dira, baina kasu honetan, 16-29 urte bitarteko adin tarteari erreparatuko diot nik, gazteen esparruaren iritzia interesatzen baitzait. Orokorrean, 1etik 10eko eskalan eraitza 6,2koa izan da, bestalde, emakumezkoena, 6koa eta gizonzkoena 6,5koa. Agerikoa iruditzen zait, gizonzkoen zifra emakumezkoena baino 0,5 altuagoa dela.

2.2. Legedia

2.2.1. Arlo-ekonomikoa: gazteentzako diru laguntzak

- ❖ 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena BOE, 276.zk, azaroaren 18koa.

Espanian orokorrean sektore publikoak izandako joera finantzieroak eta gizartean egondako eskariaren bitartez kalkulatu beharreko elementuak dira dirulaguntzak. Arlo ekonomikoari erreferentzia eginik, dirulaguntzak gastu publikoaren ehuneko garrantzitsu bat dira eta politika publikoetan kontuan hartu beharreko gastuetako bat izan behar da. Lege orokor honek, erregimen juridiko orokorraren parte diren administrazio publikoek kudeaturiko dirulaguntzei buruz hitz egiten digu. Dirulaguntzen lege orokorrak orientazioa eta sistema ekonomikoaren erreformak

ezartzeaz aparte, bermatu egiten ditu. Lege orokorrak tresna legislatiboa da, administrazio publikoetan barneratuz interes publiko izatera ailegatu egin da.

- ❖ 67/2010 FORU DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan egiten diren zerbitzu eta jardueren 2011ko prezio publikoei buruzko arautegia onartzen da.

Lege horrek zenbait eskumen aitortzen zizkien aldundiei gazteriaren arloan, Foru Arauen bidez Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoa eratu zen. Helburu horiek lortu ahal izateko, lau aterpetxe ditu erakundearen mendeko zentroetan zerbitzuak eman ahal izateko. Arautegi honen helburu nagusia; Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten aterpetxeen zerbitzuak erabili nahi izandako entitate eta erakundeei ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea. Prezio publikoaren zenbatekoa kalkulatzeko da lege honen beste helburuenetarikoa bat; instalazioak etabili eta emandako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak adieraztea eta zerbitzuak erabiltzeko erreserba formalak adosteko prozesua ere.

- ❖ 3/1997 Foru Araua, Aisialdirako dirulaguntza eta transferentzia.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak dirulaguntzaren xedeak, onuradunak, eskaeraren aurkeztea eta honen ebazpena dira honen oinarriak. Lehenik eta behin, haurren eta gazteen kanpamenduak antolatzea da honen xedea, uda sasoiari eta eskola orduetatik kanpo egin behar diren jarduerak batik batik. Bigarrenik, erakunde onuradunei egiten die erreferentzia; hala nola, gazteei zerbitzuak ematen dizkiete gazteen elkarteak eta erakundeak irabazteko asmorik ez dutenak. Hirugarrenik, eskaeraren prozeduraz hitz egiten du, hala nola, eskaeraren jardueren azalpenak eman ere. Laugarren eta azkenik, Balorazio Batzordeak jasotako eskaeren azterketa bat burutuko lukete; idazkaritza teknikaria, zerbitzu orokorreko teknikaria eta gazteriako teknikaria hain zuzen ere.

- ❖ Euskal Autonomia Erkidegoa. 170/1985 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa. Hutsen zuzenketak

Hutsen zuzenketak salatu eta aldaketak ezartzeaz arduratzen da dekretu honek, Euskadiko osorako erabakiak direnak. Dekretuak turismo eta kulturaren sailean neska mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien eta aisialdi tailerrak arautzea da lehen eskakizuna. Izan ere, 1985. urteko ekainaren 29n Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkariak izandako hutsei erantzuna ematea da bere helburua, baita egindako azalpenei zehaztasuna ematea ere.

- ❖ 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa plazaratzeaz aparte, gizarte arlo orotan bereizkeriak ezabatzeko tresnak eta gidak antolatzeke oinarriak ematen ditu. Lege honetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna lantzen duen arren, behin soilik aipatzen ditu gazteek honetan duten parte hartzea eta garrantzia; gizarte komunikabideak eta publizitatearen inguruan hain zuzen ere. 26. Artikuluari erreferentzia egirik, gizate komunikabideen programazioa egiteko orduan, hizkera sexistaren debekua aitortzen du. Debeku hori bermatu ahal izateko emakumeen parte hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua ezinbesteko da, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte. Azken honetan, gazteentzako edukietan arreta jartzea eskatzen du.

2.2.2. Emantzipazioa eta alojamendua

- ❖ 239/1999 DEKRETUA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planak, Gobernu Kontseiluak 1998ko maiatzaren 26an onartu zuenak, erakunde arteko organo bat sortzea aurreikusten du, gazteriaren arloko politikak sustatu eta garatzean euskal administrazio publikoen koordinazioa eta lankidetzak sustatzeko. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak horri buruz egindako txostena aintzat hartuta, dekretu honen bidez Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea sortzen da eta planaren osaeraren eta funtzioen ildo nagusiak ezartzen dira.

- ❖ 240/2002 DEKRETUA, urriaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko II. Gazte Planean (2002-2005), Gobernu Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28an egindako bilkuran onetsitakoan, esku hartzeko ildo berriak txertatu dira, alde batetik, gazte-indarkeriaren arazoari buruzko hausnarketa, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa egitearekin lotuta, bai eta horri buruzko jarduera-proposamen zehatzak egitearekin eta, bestetik, gazteek Europako foroetan gizartean eta erakundeetan parte hartzearekin lotuta ere. Beraz, beharrezkoa da Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua handitzea, Giza Eskubideen, Herritarren Segurtasunaren eta Kanpo Ekintzaren arloko ordezkari eskudunen parte-hartzea sartzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 1999-2001 aldirako I. Gazte Plana garatu bitartean, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Kultura Saileko ordezkariaren eginkizunak eta Batzordeko lehendakariarenak aldi berean egin ditu. Eginkizun horien banaketa funtzionalagoa eta eraginkorragoa egite aldera, Gazteriaren arloan eskumena

duen sailburuak hartuko du bere gain lehendakaritza. Zuzendaritza Batzordeak eta gazteriaren arloko eskumena duen sailburuordeak. Saila ordezkatzan jarraitzen dute.

- ❖ 406/1994 DEKRETUA, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen alojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretuaren bidez, haur- eta gazte-taldeak egoteko eta bertan ostatu hartzeko aterpetxe eta instalazioen onarpen ofiziala arautu da, gutxieneko segurtasun- eta higiene-baldintza batzuk bermatzeko xedez, sasoiko gela finkoetan edo etengabe gau batez gutxienez ostatu hartzen duten erabiltzaileentzat, eta inoiz ez hilabete baino gehiago jarraian haur edo gazteen kolektibo antolatuei, beren aisialdiaren esparruan, eskola-irakaskuntzaren esparruan, kultura-jardueren osagarrian edo eskola-jardueren esparruan.

Taldeak eta kolektiboak haur eta gazteentzat egiten dituzten jardueren zati handi bat garatzeko, ohiko bizilekuek joan behar da, eta, beraz, ohiko bizilekuek kanpo, eta erabiltzaileei egonaldi egokia bermatu behar zaie. Administrazio eskudunek gutxieneko berme eta baldintza teknikoak eskaintzen dituztela zaintzen dute, haurren eta gazteen egonaldia segurtasun- eta bizigarritasun-baldintza egokietan bermatzeko. Azaldutakoa dela eta, instalazio horiek antolatu egin behar dira haur- eta gazte-taldeentzako aterpetxe eta egonaldi-instalazio espezifikoak eskuratu nahi direnean. Horren bidez, interesa duen edonork bermatu ahal izango du gutxieneko baldintza batzuk egongo direla haur- eta gazte-talde horien ezkontzaz kanpoko ostatuetan.

2.2.3. Gazte txartela

- ❖ 233/2014 Dekretua (pdf, 167 kb), abenduaren 16koa, Euskadiko Gazte Txartela eratzeko eta arautzeko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dena.

Gazteei erraztasunak eta aukerak ematea da Gazte Txartela zerbitzuaren helburua, era horretara, alor kultural eta sozialean izan ditzaketen beharrianak asetzeko aukera handiagoak izanda, euskal gazteen bizimodua hobea eta erosoagoa izan dadin. Egitarau hau garatzerakoan izandako esperientzian oinarrituta eta euskal gazteriak egun lan-munduan, ekonomian, gizartean eta Europako krisi-egoeran bizi duen errealitatea aintzat izanik, aipatutako txartelak bere helburuak bete ditzan on litzateke orain indarrean dagoen balio-epari buruzko araudia moldatzea. Era horretara, euskal gazteriaren eskaera eta beharrianei erantzun egokiagoa emango diegu. Ildo horretatik, on litzateke Gazte Txartelaren balio-epaia luzatzea eta egun indarrean dauden Gazte Txartelen iraungitze-data ere muga horretara arte luzatzea.

- ❖ 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko "Gazte-txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko dena.

Maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak GazteTxartela zerbitzua ezarri zuen, gazteek beren garapenerako interesgarriak izan daitezkeen kultura-ondasunak, ondasun materialak eta zerbitzuak erabiltzeko aukera izan dezaten, eta, horrela, euskal gazteen bizi-baldintzak hobetzen lagundu zen, kultura-eta gizarte-arloan sortzen zaizkien beharrak asetzeko aukera zabalduz.

- ❖ 62/2009 Dekretua , martxoaren 10ekoa, Euskadiko "Gazte-txartela / Carnet joven" eratu eta arautzeko den Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.

Programaren garapenean metatutako esperientzia eta euskal gazteak murgilduta dauden Europako, soziologiako, laneko eta ekonomiako errealitate berria kontuan hartuta, gomendagarria da, txartel horrek aipatutako helburuak lor ditzan, indarrean dagoen araudia aldatzea, kudeaketa administratibo hobe ahalbidetzeko eta Europako testuinguruaren barruan euskal gazteen eskaerari eta beharrei hobeto egokitzeko eta erantzuteko.

Ildo horretatik, egokia da txartel horren onuradun izan daitezkeen adina indarrean dagoen errealitatera egokitzea, zerbitzu jakin batzuk emateko orduan haiek hobeto eta berdintasunez tratatzea bultzatuz. 2. artikulua. – Gazte-txartela agiri pertsonal eta besterenezina da, Eusko Jaurlaritzak emana, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta 14 eta 30 urte bitarteko gazteen alde.

- ❖ 16/1997 Dekretua, otsailaren 4koa. Honen bidez, Euskadiko "Gazte-txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko Dekretua moldatzen da.

Legedia aldatzen joaten da:

- Artikulu bakarra. – Euskadiko "Gazte-txartela/Carnet joven" sortu eta arautzeko maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren 2. eta 3. artikulua aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

- 2. artikulua. – Gazte-txartela dokumentu pertsonala eta besterenezina da, eta Eusko Jaurlaritzak ematen die Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 14 eta 25 urte bitarteko gazteei, hala eskatzen badute.

- 3. artikulua. – Gazte-txartelaren balio-aldia bi urtekoa izango da, eta, nolahi ere, balio-aldiaren bigarren urtearen hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31n amaituko da. Gazte-txartelen Europako Elkartek ezarritako epeetara egokitzeagatik edo operatibotasun-kontuengatik epea aldatzen bada, Kultura sailburuaren agindu bidez finkatuko da.

- ❖ 2007ko otsailaren 21eko Agindua, Kultura Sailburuarena, Euskadiko "Gazte-txartela / Carné joven Euro<26" banatzeari atxikitzeko araubidea ezartzen duena.

Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak "Gazte-txartela/Carné joven Euro < 26" txartela jarri zuen abian 1987an, Euskadiko gazteen bizi-kalitatea

handitzeko, ondasun kultural eta materialen eta zerbitzuen erabileran abantaila ekonomikoak bultzatuz. Euskadiko "Gazte-txartela/Carné joven" txartela sortu eta arautzeko maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, erakunde banatzaileek izapidetuko dute interesa duten gazteen txartela eskuratzea eta, hala badagokio, berritzea. Bestalde, otsailaren 4ko 16/1997 Dekretuak, 260/1995 Dekretua aldatzen duenak, 3. artikuluan ezartzen du aipatutako txartelaren balio-epearen aldaketak Kulturako sailburuaren agindu bidez ezarriko direla.

1. artikulua. – Xedea. Agindu honen xedea da Euskadiko "Gazte-txartela/Carné joven Euro < 26" txartela banatzen duten erakundeak txartel hori eman, banatu eta sustatzeko atxikitze araubidea arautzea, ondoren zehazten diren baldintza eta betekizunen arabera.

- ❖ 13/1998 Legea, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasak eta prezio publikoak lege-testu bakar batean arautu ziren lehen aldiz maiatzaren 31ko 3/1990 Legearen bidez, eta diru-sarrera publikoen bi modalitateek arautu behar zituzten oinarriko printzipioak eta tasa guztien erregulazio banakatua ezarri ziren. Lege horrek arrazionaltasuna sartu zuen ordura arte heterogeneotasuna, arau-dispersioa eta konplexutasuna zituen diru-sarrera publikoen sektore baten erregulazioan, eta erabat bete zituen promulgatzeko unean eska zitezkeen tasak lege-mailako arau batean berrantolatu, homogeneizatu eta bateratzeko helburuak.

Hala ere, zazpi urteko indarraldiaren ondoren, zenbait zirkunstantzia daude lege berri bat onartzea gomendatzen dutenak, aldi horretan metatutako esperientzia aprobetxatuz, diru-sarrera publiko horiek arautzeko esparru berri bat definituko duena. Lege honek, aurreko legeak ezarritako helburuei uko egin gabe, baizik eta helburu horietan sakontzeko asmoz, tasa eta prezio publikoko zerga-kontzeptuak Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaira egokitzen ditu, eta, diru-sarrera publiko horien edukiari buruzko hausnarketa-prozesu orokor baten barruan, gaur egun indarrean dauden tasa askoren erregulazioa aldatzen du, eta beste batzuk sartu edo ezabatzen ditu.

Gainera, lege horrek zerga-arloko printzipio orokorrak ezartzen ditu, besteak beste, zerga-arloko legezkoitasun- eta lege-erreserba-printzipioak, aurrekontu-unibertsaltasunaren printzipioa, eraginik ezaren printzipioa eta kutxa-batasunaren printzipioa, bai eta finantza-nahikotasunaren eta ahalmen ekonomikoaren printzipioak ere. Azkenik, legeak arau argi eta erraz aplikagarriak ezartzen ditu tasen kudeaketan, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko, eta, likidazioaren eskakizun formalekin eta ezarritako errekurso-bideekin batera, zergadunaren bermeak osatzen dituzte.

2.2.4. Aisialdia

Prestakuntza-mailei buruzko araudia:

- ❖ Gizarte eta kultura dinamizatzaile. Agindua, 1998ko ekainaren 12koa (1988-06-29 EHAA), dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzen dituena.

47/1988 Dekretuaren 7.1 atalean esaten denaren arabera, Kultur Sailak ezarriko ditu onartutako eskolek ikasturte bakoitzean eman beharko dituzten gaikuntzarako gutxienezko egitarauak, hori garatu ahal izateko egitarau hau sortu zen. Honen xedea, Euskal Autonomia erkidegoaren eremuan lan egiten duten susperketa soziokulturaleko eskolek bete beharko dituzten gaikuntzarako gutxienezko arauak ezartzea.

Dinamizatzaile soziokulturalek egindako kurtsuak honako urratsak eta orduan izan beharko dituzte:

a) Prestakuntza teorikoaren urratsa (200 ordu):

- Teoria (75 ordu)
- Teknika eta baliabideak (125 ordu)

b) Prestakuntza praktikoaren urratsa (200 ordu).

Ikastaroen antolaketaren inguruan:

- 1- Prestakuntza plan hauek ezin izango dute beste curriculum baten barnean egon.
- 2- Ikastaroa hastean matrikulatuen zerrenda itxiko da.
- 3- Ikasleak ikastaroa uzten badu, edo ordu kopuruak ez baditu betetzen, ezin izango du beste ikastaro batean parte-hartu.
- 4- Derrigorrezkoa izango da ezarritako gutxienezko ordu guztietan bertaratzea.

Prestakuntza-eskolei buruzko araudia:

- ❖ Aisialdirako hezitzaileen eskolak. 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa (94-11-16 EHAA), batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.

Dekretu honetan, Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak hartzen dira kontuan, baita, Haur eta Gateen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak ere. Bertan, izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte-hartzeko modua arautzen da. Euskal Autonomia Elkartearen gazteentzako eta haurrentzako politika arloan jarduteko ahalmen osoa daukala hartu behar da kontuan,

baina hau Kultur Sailaren eskuetan utzi zuela 525/1991 Dekretuaren bidez esan beharra dago. Dekretu honen xedapenak hurrengoak dira:

- Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak ofizialki izenda ditzaten eta Haur eta Gazteen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Planak ofizialki onar ditzaten Euskal Autonomia Elkartearen barruan errespetatu beharreko betekizunak ezartzea
- Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola izenda ditzakete ofizialki, titulartasuna gizabanako juridiko, publiko zein pribatuarena izanik eta iharduera hori burutzeko lege aldetik betebeharreko eskakizun guztiak errepaturik, ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten eskolak:

· Eskolei dagokienez:

- a) Eskaintako trebaketa ikastaroak era egokian burutzeko behar beste giza-baliabide eta bitarteko materialak izatea eskuragarrik.
- b) Eskola Zuzendariak goi-mailako eta erdi-mailako titulazioa izatea.

· Ikastaroei dagokienez:

- a) Dekretuaren I Eranskinean ezarritako gutxieneko betebeharrak errespetatu beharko dituzte.
- b) Eskolak izendapen ofiziala lortzen duenetik eskaini beharko ditu ikastaroak.

· Trebaketa planei dagokienez:

- a) Trebaketa egitarauaren jakintza helburu orokorrak antolatutako kastaro bakoitzerako berariazko izango dira.

b) Helburuak:

- Ikastaro bakoitzeko berariazko plana.
- Ordu kopuruak orotara, arloka eta gaika
- Trebaketaldiaren denbora banaketa.
- Praktikak egiteko moduak.

Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak izendapen ofizialez izan daitezten eskabideak, trebaketa jarduera gehienbat zein Lurralde Historikotan burutuko den kontuan hartuta bakoitzari dagokion Foru Aldundiko gazteria erakundean aurkeztuko dira.

- ❖ Gizarte eta kultura Sustatzaileen Eskolak. 47/88 Dekretua, martxoaren 1ekoa (1988-03-16 EHAA), martxoaren 1ekoa, Gizarte eta Kulturarako Zuzpertzze-Eskolen onarpena arautzen duena.

Dekretu hau, suspertze eta Kulturako Suspertze-Eskolen onarpena duena da. Honek Euskal Herriko Autonomia Elkarterako araugintza-esparru espezifikoko bat jartzen du haurren eta gazteen aisialdirako entitate eta ekintzetarako monitore eta zuzendarien gaitze eta gertakuntzari bidea ematen dio. Gizarte eta kulturarekin zerikusia daukaten inizatiba berriak sortzearekin zerikusia dauka Dekretu honen sorrera, beharrezkoa

baita hauek kultura suspertzen duen aisialdirako prestakuntza jasotzea, baita arau-esparru bat jartzea ere. Honetarako hainbat xedapen zehazten ditu Dekretu honek:

- Gizarte eta kulturazko suspertze-eskolak zein baldintzetan izango diren onartuak zehazten du.

- Onarpen ofiziala beharrezkoa izango da, baita arau bidez zehaztea ere.

- Onartuak diren eskolak kokatzen diren Foru Diputazioaren araudia jarraitu beharko dute. Onartuak izateko idazki bat aurkeztu beharko dute zeinetan dokumentu hauek ageri diren:

a) Eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen nortasuna ageri den dokumentua.

b) Monitore eta Zuzendari gisa arituko direnen titulua.

c) Eskolaren proiektua, organigrama eta egituraketa.

d) Egiturari eta baliabideei buruzko txostena.

e) Jarduera egingo den lekuaren gizarte eta kulturazko ikastaroak eginda izatearen agiria.

f) Eskolak erantzun nahi dion eskaeraren ikerlana.

g) Ikasleei eskainiko dizkien praktikak.

h) Gai bakoitzaren ordutegiak espezifikatuta eta tituludun irakasleen zerrenda.

i) Etapa bakoitzaren prozedura eta ebaluaketako tresnak.

- ❖ 169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa, onartzen duena Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren funtzionamendu araudia eta arautzen dituen boluntariotzari buruzko zenbair alderdi. EHAA, 188. zk. azaroaren 16koa

Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legearen 10. artikulua bitartez sortutako Dekretua da, honen bitartez, erroldaren edukia zehaztuko da, baita erakundeek inskribatzeko jarraitu beharko duten prozedura ere. Administrazio publikoaren eta erakundeen arteko lankidetzaren oinarri moduan, eta argi uzten du gaur egun ezinezkoa dela erakundeen beharrei soilik administrazio publikotik erantzutea. Dekretu honen bitartez EAEn dauden erakundeen kopurua ezagutu nahi da, eta Euskal Boluntariotza Kontseilua sortuko da. Eusko Jaurlaritzak alor horretan bete beharko dituen eskumenak hurrengoak dira:

- Boluntariotzaren baliabideen katalogo publikoa eratzea.

- Boluntariotzari buruzko agiri-fondo eta datu-base bat osatzea, foroak koordinatzeko.

Dekretu honetan hainbat xedapen ageri dira aurreko eskumenak aurrera eramateko:

-Xedea: Boluntariotza Errolda 17/1998 Legetik sortutakoa da. Dekretu honen beste helburuetako bat boluntariotzari buruzko beste alderdi batzuk arautzea da.

- Aplikazio eremua: Honetan boluntariotzako elkarte izena daukatenak eta izaera hori ez daukaten arren haien ekintzen barruan boluntarioek parte-hartzen dutenetan. Kasu guztietan elkarte hauen izaera juridikoak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Legez eratuta egotea.
- b) Berezko nortasun juridikoa izatea
- c) Irabazi-asmorik ez izatea.
- d) Interes orokorrekotzat hartzen diren programak eta proiektuak gauzatzea.

- Inskripzioaren ondorio juridikoak: Inskripzioa borondatezkoa izango da boluntariotzako erakundeentzat. Izena emateak Boluntariotza Euskal Kontseiluan parte-hartzeko aukera emango die.

- Inskripzio honek hurrengo edukia izan beharko du:

· Datuak:

- a) Erakundearen izena.
- b) IFZ.
- c) Erakundearen izaera juridikoari dagokioen erregistroan izen ematearen agiria.
- d) Helbide soziala.
- e) Erakundearen xedea eta burutuko dituen jarduerak.
- f) Lan egingo duen esparrua.
- g) Zuzenduta dagoen populazioaren ezaugarriak.
- h) Jardueren lurralde-eremua.
- i) Ordezkaria eta boluntariotzaren arduradunaren izena.
- j) Giza-baliabideak zeintzuk izango diren.
- k) Elkarleen onuragarritasun publikoko aitortpena.
- l) Boluntarioek burutuko dituzten jarduerak eta programak.
- m) Aseguru poliza.
- n) Boluntariotzako barne estatutua.

· Aseguru poliza.

2.2.5. Gazteei bideratutako informazioa

- ❖ 211/1993 Dekretua, 1993ko uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespene ofiziala arautzen duena

Gazteentzako informazio zerbitzuaren onespene 1993ko uztailaren 20an sortu zuten, dekretuaren bitartez gazteriari dagozkion sustapen sozio kulturala aitortzea da xedea. Kultur-sail horrek gazteentzako informazio zabala, objetiboa eta eguneratua izatea du helburu, informazio alorrean izandako inizatibak bultzatuz. Dekretu honetan ezarritako gutxieneko baldintzei eta betebeharrak dagokienez onarpena duen zerbitzuan aldaketaren bat izanez gero. Gazteentzako informazio zerbitzuek, ofizialki onartuak direnez; lanean hasteko eta jende aurrean aritzeko errespetua beharrezkoa da. Onartutako gazteentzako informazio zerbitzuren batek dekretu honetan araututako baldintzak eta betebeharrak errespetatu ezea, onarpen ofiziala baliorik gabe utzi ahal izateko. Legearen azterketa eta honen egitura hiru zatitan banatu da, hurrengo hauek direnak:

- Oinarrizko araudia: politikaren printzipio zuzentzaileak eta ordenatzaileak zehazten dituen araudien artean eskumenak banatzen dituen da. Bi ikuspegiaren arabera banatzen dena; materiala –araudi uniforme eta funtsezkoa- eta formala –legegileak direnak-.
- Sektore araudia; aztertutako politikaren berezko erregimena arautzen duen alderdia.
- Antolaketa araudia; politiketan esku hartzen duten eragileen antolaketa eta funtzioei buruzko arauak biltzen ditu.

2.3. Planak, programak eta egitasmoak

Eusko Jaurlaritzak gazteen esparruari erantzuteko hiru plan burutu ditu; Gazte Plan hauek Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait instituziok (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) sortutako txostenak dira. Honela gazteen beharrak identifikatu, konpondu eta asetzeko helburua betetzeko asmoa dago. Oro har, etxebizitzaren lorpena, balioetan hezteak, osasuna, gizarte ekintza, mugikortasuna, partaidetza eta aisialdia eta kultura lantzen dira. Hortaz, hiru plan hauen nondik norakoak aztertuko ditut.

Lehenik eta behin, 1999 urtetik 2001 urtera garatutako **EAEko I. Gazte Plana** dago, ikuspegi integral batetik abiatuta, hiru elementu adierazgarri azpimarratzen ditu: konpromiso instituzionala, ekintza positiboko politika bat garatzea eta programa zehatzak diseinatzea. Instituzioen arteko konpromisoari dagokionez, plan honek helburu zehatz batzuk ditu, gehien bat agente sozialen parte hartzea gidatu eta dinamizatzeko asmoa dutenak: erakundeek gazteen mesedetan eginiko lan guztia optimizatzea, instituzioen eta sailen arteko ildo bakarra garatzea... Planaren izaerak, hiru maila instituzionalen jardura ildoak bateratzea lortu nahi ditu, horretarako, planak barne hartzen dituen ekintza bakoitza erakunde desberdin bakoitzaren ardura izango da. Hala ere, Euskal Administrazioen jarduerak orientazio eta mezu komun batzuk jarraituz diseinatu dira, planak zuzenean edo zeharka errealitatean eragiten duten alderdi edo faktore guztiei eragiteko. Eskumenei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak kudeaturikoa bada ere praktikara eramaterako unean Foru Aldundiak eta Udalek ere esku hartzen dute. Beste alde batetik, landa lana udalek egiten dute herri bakoitzeren beharrak eta eskariak kontuan hartuta politika egokituak sortuz.

Bigarrenik, 2002-2005 urteetan egindako **EAEko II. Gazte Plana** burutu zuten, kasu honetan, hainbat eragile eta ekintza ezberdin lantzen dira, baina horiek aparte, aurrekoarekin alderatuta planteamendu estrategiko berri bat bultzatzen du, eta ekintza ezberdin horiek sustatzeko eta garatzeko mekanismoetan oinarrituta daude. Hau lortzeko, lehenengo gazte planak bere baitan hartzen ez zituen hainbat erakunde berri barneratu izan ditu. Laburbilduz, Gazte Plana, gazteriaren errealitatea ikuspegi globalarekin aztertzeko sortu da, hau da, gazteen errealitatea osatzen duten ikuspegi ezberdinak aztertzeko: lana, heziketa eta prestakuntza, osasuna eta gizarte-ekintza, eta astialdia eta kultura. Egungo gizartean aldaketak oso bizkor gertatzen ari dira, eta horregatik, gazteen bizitzaren kalitatea hobetzeko baliagarriak diren estrategia berriak diseinatzerakoan kontu handia izan behar da. Horrez gain, gazteek ezinbestekoa dute bere parte hartzearen bitartez ekintza hauek bultzatzea, beti ere, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren inguruan gabiltzala hizketan ahaztu gabe.

Gehienetan, erakunde hori egokitzat jotzen delako, gazteek administrazioarekiko izan ditzaketen harremanak errazteko eta lehendabiziko horien parte hartzea sustatzeko.

Kontuan izan beharrekoa da, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, zuzenbide publikoko erakunde bat izateaz gain, EAEko 50 gazte elkartek baino gehiagok osatzen dute. Erakunde hau maiatzaren 27ko 6/1986 legearen ondorioz sortua zen eta lege horretan zehaztutakoaren arabera gauzatzen du bere jarduna. Bertan, hainbat jarduera ezberdin gauzatu izan dira azken urteetan: (1) 2002. Urtean, II. Planaren sortzean parte hartzea, balorazio txostena egitea, planaren jarraipena gauzatzea... eman ziren; (2) 2003. urtean, Nazioarteko Biltzar bat antolatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako foru aldundiarekin batera hitzarmen bat egin zuten gazteen elkarten mugimenduari laguntzeko asmoz; (4) 2004. Urtean, Gazte planaren jarraipena egiteaz gain, kontseiluari dagozkion ekintzak programatu, ebaluatu eta gauzatu ziren. Bestalde, lan talde bat ere sortu zen kudeaketa erduei buruz eztabaidatzeko eta horiei buruzko gomendioak jasotzen zituen dokumentu bat sortzeko; eta (5) 2005. urtean, Bizkaiko lurralderako propio garatutako gizarte politikari buruzko jardunaldi bat egin zen.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak II. Gazte Plana sustatzeko eta garatzeko lanean parte hartze handia eta jarraitua izateaz gain, nabarmendu behar da elkarteetakoak ez diren gazteek ere parte hartu dutela planean, Interneten gazteentzako dagoen atariaren bitartez: *Gazteaukera*. Bestalde, bigarren plan honetan, gazteen emantzipazioa, gizarteratzea eta helduarora igarotzeko bide horretan laguntzea du. Gazteen gizarte errealitatea oso konplexua da hainbat alderdi ezberdinek eragina dutelako: (1) lana eta laneratzea, (2) hezkuntza eta lanerako prestakuntza, (3) etxebizitza, (4) osasuna eta gizarte ekintza eta (5) gazteen aisia eta kultura. Aipatzekoa da hau, txosten osoan zehar jorratuko ditudan hainbat esparru kontuan hartzen direlako.

Diagnostikoaren barruan helburu nagusiak finkatu behar dira, beraz, kasuan kasuko ildoak eta proposamenak garatzea ezinbestekoa da. Horrek, erakundeen arteko eta sailen arteko harremana sustatzen du eta bide batez, gizarte esku hartzea baliatzen du. Hala ere, aurreko ildo bera jarraitu arren, II. Gazte Planak hiru berrikuntza nagusi ekarri zituen: balioen garrantzia azpimarratzea, planari eman beharreko bultzada lantzea eta berrorientatzea (beti ere esku hartze eta ekintzetan oinarrituta). Sakonago azalduta, balioen gaiak planaren barnean oso helburu argia dauka eta hori hausnarketa sustatu eta justifikatzea da. Horretarako, planak oinarri sendo bat izatea ezinbestekoa da bestela lortuko litzatekeelako diagnostiko neutral bat izango zen.

Informazio iturriei dagokionean hurrengoak erabiltzen ditu: 1. Europako ildo nagusiak, 2. profesionalek landutako dokumentuak eta 3. alor bakoitzean osaturiko lan taldeetako partaideen lana. Balio jakin batzuekiko konpromisoa hartzea, horiei ikuspegi operatibo bat eskainiz horiek identifikatzeko beharra azpimarratzen da.

Planaren bigarren kapituluak, gazte indarkeria lantzen du eta errealitate horren lanketarako zeharkako bide bat jorratu behar duela aitortzen du. Horretarako, balioen dimentsioa ematen zaio eta EAEko testuinguruan kokatzen da.

Planari eman beharreko bultzadari dagokionez, gazteen kolektiboa osatzen duten kide guztien oinarrizko beharrianak edo lehentasun handiena dutenak lantzeko zuzeneko eta zeharkako eragina izan behar du. Zeregin hori hainbat lan esparrutan banatzen da eta eragile guztien inplikazioa eskatzen du. II. Gizarte Planaren baitan dauden eragileen abiapuntuak zein izango diren argitu nahi digu ahalegin eta ekarpenen bidez. Hau, planaren hirugarren kapituluaren zehazten da eta bertan, eragileen identitatea definitzen du: (1) gazteak, (2) gizarte eragileak, (3) administrazioa eta (4) udalak.

Berrorientazioari buruz hitz egiten badugu, I. Planaren balorazioen ostean, esku hartzeko ildoak eta ekintzak birdefinitu dira. Horrek esku hartzeko ildo bereziak agertzea eragin du. Honen azalpena laugarren atalean agertzen da, baina bertan aipatzen duenez, berriz orientatzeko lan hori ezin da esku hartzearen eskumen soiltzat ikusibehar, horri esker, berrikuntza ugari agertu dira. Berrikuntza horietako batzuk orokorrak dira, hots, gizarte osoari dagozkien aldaketei buruzkoak baina, beste batzuk, azken urteotan arlo bakoitzaren inguruan egin diren diagnostikoen emaitza dira.

Ikuspegi orokorrago bati egiten badiogu erreferentzia, hauek dira **EAEko I. Gazte Planetik EAEko II. Gazte Planera emandako aldaketa garrantzitsuenak:**

- Arazo berriak agertu direnez honekin batera eskaera berriak agertu dira. Horrek, lehenengo planean azaletik lantzen ziren hainbat arazotan sakontzea eragin du. Eskaera berri horien artean nabarmenena immigrazioak izan dira. Hots, etorkin gehiago dauden heinean, beharrianen izaera ere errotik aldatu da. Horien bizi baldintzak hobetzeko baldintza hedatu egin da eta beraz, esku hartzeko ildo eta ekintzen diseinu berriak sortzea eragin du.
- Informazioaren teknologia berriei garrantzi handiagoa ematen zaie, gazteentzat funtsezkoak direlako eta prestakuntza zein lan merkatuari loturik oso erabilgarriak izan daitezkeelako. Horiez gain, kulturaren eta aisiaren arloan ere berebiziko indarra hartu dute.
- Europar testuinguruan batasuneko herrialdeek garrantzi handiagoa dute eta beraz, hiru erakunde mailen gainean eragiten dute. Halere, europar erakundeetako jarduerak politikoak, juridikoak eta ekonomikoak euskal gazteriarengan eragin zuzena dauka.
- I. gazte planaren proposamenean ere aldaketak egin dira planak indarrean iraun zuen 3 urtetan ekintzen eragin positibo zein negatiboak eman baitira. o Lehenengo arloa, Lana eta laneratzea: lanak, gazteen arazo gordinetako bat izaten jarraitzen du. Hala ere, lan ezegonkortasunak emaitzetan eragin zuzena izan du. Euskal gazteria eta lanaren egoera kezkarria gertatzen da langabezia jaitsi arren, lan jarduerak garatzeko baldintzak txartu egin direlako.

- Bigarren arloan, hezkuntza eta lanerako prestakuntza lantzen dira. Bertan esaten da irakaskuntza globalizatu beharra dagoela informazioaren teknologia berriak aplikatuz.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, EAEko II. Gazte Plana lantzerako unean honako lan ildo hauek jarraitu dira: (1) I. Gazte Planerako landutako diagnostikoen berrikusketa teknikoa, (2) gauzaturiko ekintzen balorazioak aztertzea eta (3) ekintzak berrorientatzea II. Planaren balioen ildotik.

Azkenik 2013 urtetik 2020 urtera burututako **EAEko III. Gazte Plana** dago, zeinetan helburu nagusia, gazteen emantzipazioa lortzea da eta horretarako, bizi proiektuak eraikitzeke, garatzeko eta proiektu kolektiboetan parte hartzeko aukera eskaintzen zaie. Kasu honetan, aurreko gazte planen ezaugarri berberak ditu, hau da, integrala izatea, zeharkakoa, sail artekoa eta gizarte partaidetza ahalbidetzen duena. Horrez gain, aurreko planengandik ezberdintzen duen arlo bat garatu dute, EAE osorako baliogarria izan daiteken erreferentziatzko marko orokor bat ain zuzen. Bertan, modu koordinatu eta globalean lantzen dute gazteriaren arloan lanean diharduten herri administrazioen jarduna lantzen duten esku hartze lerro zein jarraibideak.

EAEko III. plana, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko ekainaren 12an onartu zuen. Planak, EAEko administrazio bakoitzean gazteriaren arloko plangintza egokia egotea bermatuko du eta hauen ebaluaketaz ere arduratuko da araututako irizpideak jarraituz. Jakina da EAEko herri administrazio bakoitzak bere burua antolatzeke gaitasuna duela eta horretarako hainbat eskumen egikaritzea ahalbidetzen duen gazte politika integralak programatzen dituztela. Hori egiteaz gain, ebaluazioa gauzatzeko sail arteko koordinazioa ere bermatuko du bere administrazioaren baitan. Plan hau gauzatzeko, legegintzaldiaren hasieran egindako aldaketetara egokitzeko asmoz, gobernu plana zehaztusailatuko, ordezkariak hautatu eta sailburu ordean batzarraren ostean, lehen zirriborroa jaso zen. Hori egin eta gero, erakundeekin, gizarte eragileekin eta gazteekin parte hartze prozesua gauzatu ondoren eginiko diagnostiko batetik abiatu eta beharrezkoak liratekeen konpromisoak zehazten dira agirietan. Planak, gaiaren mamira heldu aurretik, euskal autonomia erkidegoko gazteen ezaugarri orokorrak definitzen ditu. Bertan dionez, gazteen kopurua gutxitu egin da nahiz eta atzerritarren indizeak gorakada jasan duen. Beste alde batetik, azken hamarkadan gaztedi osoaren jarduera tasa murriztu egin dela eta emantzipazio tasak horren ondorioz beherakada garrantzitsu bat jasan duela azaltzen digu. Lan ezegonkortasuna eta kontratuen behin behinekotasuna ere oso handiak dira eta familia izan ohi da oraindik ere diru iturri nagusia.

Etxebizitza bat eskuratzeko unean, hainbatzailtasunak daude eta gazte askok eta askok gurasoen etxean jarraitzen dute. Etxebizitzen prezioak behera egin badu ere, gazteen jasaten ari diren egoera prekarioak ez dien ahalbidetzen etxe bat erosteko aukera. Hezkuntzari eta lanerako prestakuntzari dagokionez, hezkuntzaren balorazioak hobera egin du.

Euskararen jakite maila eta erabileraren arabera gazte elebidunen kopuruak gora egin duazken urteotan eta euskaraz dakiten erdiek egunerokotasunean gaztelaniaz diarte. Osasunaridagokionean, oro har osasun maila ona dute euskal autonomia erkidegoko gazteek.

Gizarteari erreparatuz gero gehienek uste dute gazteen egoera hala moduzkoa dela nahiz eta hobera egin duela pentsatzen duenik ere baden. Bestalde, gazteek politikako interesa galduta dutela ikusten da aldiz, gorakada izan du intolerantzia sentimenduak eta baita etorkinenganako arbuio sentimenduak ere, genero indarkeriarenarekin batera. Hainbat arlo bereizten dira eta horietan eragitea da asmoa gazteen bizi kalitatea eta lan munduratzea hobetzeko asmoz.

Hari beretik, aipaturiko arloen analisia burutuko dut: (1) hezkuntza, (2) enplegua, (3) etxebizitza, (4) osasuna, (5) kultura, (6) aisialdia eta (7) kontsumoa dira.

(1) HEZKUNTZA: Diagnostikoan agertzen den moduan, gazteek geroz eta ikuspuntu hobe dute hezkuntzaren inguruan. Eskolaratze tasak eta prestakuntza maila bere horretan mantendu dira eta estatuko beste edozein portzentaje orokorrekin alderatuta egoera pribilegiatu batean aurkitzen da EAE. Bestalde egoera ikasgeletan aldatu egin da, hau da, aniztasuna geroz eta handiagoa da, honen ondorioa, etorkinen tasaren handitzea da. Egoerak hobera egin badu ere, hainbat behar identifikatu dituzte:

- Prestakuntza maila hobetzea eta eskola uzteen tasa murriztea.
- Generoak, maila sozialak eta egoera ekonomikoak banakoen ikas ibilbidean ez eragitea.
- Ikasle atzerritarren gorakadak behar berrien sorrera asetzea.
- Gazteen hezkuntza ibilbidean sortutako jokabide etenen ondorioz sortzen diren beharrei erantzutea.
- Balio hezkuntza hobetzea eremu formal zein informalean.
- Hezkuntzako eragile guztien lana koordinatzea.
- Euskararen ikaskuntza jarraitzea.
- Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza formaletik haratago.
- Gazteen hizkuntza gaitasuna hobetzea, ugikortasuna sustatzearen bidez.
- Ikasketa bizipenekin, hizkuntza aniztasunarekin eta kultura artekotasanarekin loturiko mugikortasuna bultzatzea.

Behar horiek asetzeko, lehentasunezko eginkizunak, sistema arautuaren barruan hezkuntza arrakasta bermatzeko tresna gisa ulertzen da hezkuntza sistema. Helburu estrategikoei dagokionez hurrengoak aipatu behar ditugu:

- Hezkuntza sisteman errepikatzea ekiditea.
- Balio hezkuntza hobetzea hezkuntza eremu formalean nahiz informalean.
- Gizateko eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntzako politika bateratuan biltzea.

- Gazteen hizkuntzetarako gaitasuna hobetzea EAEko bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

Euskadiko Gazteak Lankidetzaren programa, hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura sailburuaren eraginpean sortutakoa da. Honen helburua, euskal autonomia erkidegoko gazteen artean elkartzunezko balioak sendotzea eta garapeneraren inguruko sentsibilizazioa sortzea da. Garapenerako ekintzak, hegoaldeko herrialdeetan izaten dira normalean. Beste programa bat, Harrapazank izan daiteke eta hau Eusko Jaurlaritzako Topaguneak, Bilboko udaleko euskara eta hezkuntza sailekin egiten du bat. Helburua, gazteen talentua eta sormena erakustea da eta hainbat esparru hartzen ditu bere baitan, antzerkia, musika, dantza, monologoak, txisteak, monologoak, bertsoak... Bestalde hezkuntzan urtez urte finkaturiko ekintza batzuk ere agertzen dira, hala nola, unibertsitateko beka orokorra ezarri behar zen doktoretza aurreko eta ondorengo programez gain. Unibertsitateko prezio publikoen salbuespenak zaintzea, sentsibilizazio zerbitzuak gauzatzea...

(2) ENPLEGUA: Lanbideari erreferentzia egiten dion esparru, bi atal ezberdinetan banatzen da prestakuntzan eta enpleguan alegia. Gazteek lanbide heziketaren inguruan ikuspuntu ona badute ere, lan munduaren oreka faltak ez die uzten etorkizunera begirako lasaitasun edo egonkortasun bat lortzen. Ezbeharrei dagokien arren, gizonetako gazteek izaten dituzte istripu gehienak. Arazo horiek identifikatzean, behar jakin batzuk agertu dira:

- Lanean jarraitzeak gazteek lanbide heziketaz duten iritzia hobetzeko eta ondorioz, era horretako ikastetan gazte gehiago matrikulatzea.
- Gazteak lan munduan sartzeko bidea hobetzen jarraitzea.
- Prestakuntza sistemaren eta lan merkatuaren arteko koordinazioa sustatzea edo hobetzea.
- Gazteen langabezia tasa murriztea, batez ere gazteena.
- Lan mundura sartzeko bideen eraginkortasuna hobetzea, batez ere, enplegu eta zerbitzu publikoena.
- Gazteen eta batez ere emakume gazteen denplegu baldintzen kalitatea hobetzea.
- Gazteen lan ezbeharren kopurua murriztea.
- Ekintzaitza bultzatzea, lana aurkitzeko eta ogibidean aurrera egiteko bide gisa.

Hauek betetzeko, hainbat jarduera gauzatuko dira enpleguaren arloan, etenik gabeko prestakuntza eta bizi osoan barrena ikaskuntza sustatzea, gaikuntza eta lanean aritzeko aukerak hobetzeko asmoz. Prestakuntza eremuaren eta lan merkatuaren arteko harremana nahiz lotura sustatzea, politika koordinatua sustatzearen bidez, gazteak lan munduan txertatzeko prozesua hobetzea eta politika koordinatu baten

bidez ekintzailatza sustatzea. Ekintza horiez gain, helburu estrategiko batzuk ere zehazten dira, hurrengoak direnak:

- Etenik gabeko prestakuntza eta bizitza osoan barrenako ikaskuntza.
- Prestakuntza eremuaren eta lan merkatuaren arteko lotura indartzea, gazteek jasotako prestakuntza enplegu aukeretara ahalik eta ondoen egokitu daitezen.
- Enplegua sortzea, mantentzea eta haren kalitateari eustea xede duen politika koordinatua sustatzearen bidez, gazteak lanean txertatzeko prozesua hobetzea.
- Ekintzailatza suspertzea, ekintzaile izateko gaitasunak gazte gaztetatik landuko dituen politika koordinatuen bidez.

Lan arloaren kasuan, Auzolandegien programak, berebiziko indarra eta eragina izan dezake gazteetan. Horren arrazoi nagusia bertan jatorri anitzeko gazteak biltzen direlako eta gizarte osoan eragin dezakeen proiektu batean parte hartzeko aldi baterako elkarbizitza partekatzen dutelako. Horrek, baditu ezkutuko balore batzuk eta arautegiaren zein bertan sortutako giroaren bitartez transmititzen dira. Hala nola, denak parte hartzea, elkarlana sustatzea, esperientzia berriei bideak zabaltzea, parte hartze aktiboa izatea, komunitatearen aldeko lanak egitea, jarduerak era sortzailean eta elkarlanean gauzatzea... Lan arloari dagokionez, helburu edo ekintza nagusi batzuk adosten dira plan honetan eta honakoak dira, unibertsitateko edo lan heziketako tituluak dituzten pertsonak kontratatzea, profesionalak garapen eta lankidetzaren arloan espezializatzeko bekak eskaintzea... Balore guzti horiek gero bai euren bizitza pribatuan zein lan munduan baliogarriak izango zaizkie.

(3) ETXEBIZITZA: Gazteak eta etxebizitzari dagokionez, euskal autonomia erkidegoko emantzipazio tasak gora egin du, baina jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dute gehienek. Halere, gurasoekin bizi diren pertsonak badute emantzipatzeko gogoak dituzte, baina etxebizitza edo alokairuen prezioak ikustean gogo horiek kentzen zaizkie. Etxebizitzaren erosketara sustatzeko hainbat politika ezberdin aurkitzen dira eta arrakasta handia izan dute gehien bat. Krisiaren ondorioz aldatu egin da gaztarotik helduarora igarotzeko ibilbidea eta horren ondorioz, elkarbizitza modu berriak eratu dira. Guzti hori ikusirik, hainbat beharizan identifikatu dira:

- Emantzipazio tasa handitzea eta emantzipatzeko adina aurreratzea.
- Erantzun handiagoa eta landuagoa ematea Etxebiden izena eman duten gazteetatik babespeko etxea eskatu dutenei.
- Alokairua sustatzearen bidez gazteei etxebizitza lortzen laguntzea.
- Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduak zaintzea, etxebizitza lortzeko bide are malguagoak jartzearen bidez.

Behar horiek ikusita, lehenetsuneko eginkizun batzuk aurreikusi dira etxebizitza ez baita kontsumora edo inbertsiora bideratua dagoen gai bat, eskubide bat baizik. Horrez gain, gazteen ongizatea hobetzen eta hauen bizi proiektuak garatzeko aukera ematen duten politikak garatu behar dira. Horregatik, alokairuaren aldeko apustua

lehenesten du planak eta jarraian aipatuko ditugun puntu hauek lehentasuna izango dute planean:

- Gazteei etxebizitza lortzen laguntzeko politikak sustatzea eta horretarako eskuratzeko modukoak diren prezioak bermatuko dituen eskaintza koordinatu bat sortuko da. Behin hau eginda, alokairuari erosketari baino garrantzia gehiago ematea aurreikusten da. Baita, hutsik dauden etxebizitzak betetzea ere.
- Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduen dibertsifikazioa zaintzea. Etxebizitzak erabiltzeko eta horiek jabetzan izateko modu eta eredu are malguago eta berriagoak erabili behar dira, etxebizitzaren merkatua are malguago izan dadin eta merkatu hori familia egituren, lurralde mugikortasunaren eta gizartearen beste aldaketa batzuetara egokitzeko.

Horiez gain, hainbat helburu estrategiko ere aurreikusten ditu planak:

- Nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteei etxebizitza lortzen laguntzea edo aukerak hobetzea, etxebizitzaren eskaintza handitzea eta alokairua lehenestea baliatuz.
- Etxebizitza eredu berrien agerpena lantzea eta hauen garapena sustatzea.

(4) OSASUNA: Osasun hitzak gero eta esanahi eta balio handiagoa dauka gaur egungo gazteetan eta hori dela eta, garrantzia ere handia da. Gazte bakoitzak “osasuna” ezberdin ikusten duten arren, datuetan oinarrituz, gaur egungo gazteria nahiko osasuntsu dagoela ondoriozta daiteke. Izan ere, erdira murriztu da gazteen heriotza tasa, baina esan beharra dago, mutilen heriotza tasa lau aldiz handiagoa dela neskekin alderatuz gero. Hala ere, gaur egungo gazteen bizitza estiloaren aldaketa da osasuntsu egotearen faktore garrantzitsuenetarikoa. Beste alde batetik, orokorrean osasuntsu egoteak ez du esan nahi ez direla hainbat arazo eta adikzio ematen gazteen artean; besteak beste depresioa edota antsietatea, alkohola, tabakoa, kanabisa... Gazteen artean hamarretik batek depresioa edota antsietatearen sintomak pairatzen ditu, aipatzekoa da emakumeetan kopurua bikoiztu egiten dela gizonezkoekin alderatuz gero. Bestalde, obesitatearen faktoreak gogor jotzen du gazteengan, populazioaren %20a pisu egokitik baino gorago kokatzen baita. Aurretik aipatutako kontzeptuez aparte, aipatu beharra dago alkohol kontsumoaren tasak behera egin dutela, baina ez hori bakarrik, tabako eta kanabisaren, legez kanpoko sustantzien kontsumoak zein HIES kasuak ere. Arazo horien aurrean, 2016-18ko gazte planak, honako beharrak identifikatu ditu:

- Osasunaren ideia integrala transmititzea gazteei.
- Elikatze osasungarria sustatzea.
- Mutilen heriotza tasetatik “gizonezkoen” jokabide erduei eta bizimoduei lotutako horiek murriztea.

- Gazteen buru osasuna hobetzea, batez ere, depresio edota antsietatea duten pertsonen sexuari arreta berezia jarriaz.
- Jarduera fisiko osasungarriari buruzko gomendioak gazte gehiagok ezagutu ditzaten lortzea.
- Gazteek are jarduera fisiko gehiago egin dezatela lortzea eta gazteek egoneko jokaerei eskainitako denbora murriztea, arreta berezia jarrita emakume gazteengan eta gizarte eta ekonomia maila dagokienez, ahulenak diren biztanleriarengan.
- Inaktibitate fisikoa eragiten duten egoeretan dauden gazteei laguntza ematea.
- Apurtzea aisialdiaren eta alkohola, tabakoa nahiz legez kanpoko drogak hartzearen arteko lotura.
- Nagusiki, talderik arriskutsuenak prebenitzea eta kontzientziatzea alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzeari buruz.
- Alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzen hasteko adina atzeratzea.
- Gazteei sexu harremanetan burujabetasunez jokatzeko irakastea.
- Sexu seguruaren alde hezten jarraitzea.
- Astegunetan ikastetxera edo lantokira egindako joan etorriei buruzko elkarrizketak antolatzea.
- Errepidean jarraitu beharreko legeen eta derrigorrez errespetatu beharreko legeen ezagutza zabaltzea zein hauen garrantzia azpimarratzea.

Arazo horiek eta gehiago identifikatu dituzte eta hauek garaitzeko lehentasunezko eginkizun batzuk adostu dira:

- Gazteek lehen baino hobeto ezagutzea osasun baliabideen erabilgarritasuna eta erabilera.
- Gazteek ohitura nahiz jokabide osasungarriak izan ditzatela sustatzea, osasunaren ikusmolde integral nahiz dimentsio aniztuna oinarri harturik.
- Jokabide arriskutsuak prebenitzea eta murriztea, osasunaren ikusmolde integrala oinarri harturik.
- Norbanakoen gain eta taldearen gain mugikortasunak dituen ondorio negatiboak murriztea.

Osasunaren arloan ere hainbat programa jarriko dira martxan. Esaterako, LGTB kolektiboari telematikoki arreta eskaintzeko zerbitzuak abian jartzea, baita haur zein nerabeei ere. Bestalde, Zeuk esan webgunea sortzea. Baita osasun atarian bizimodu osasungarriari buruzko informazioa eskaintzea, Hiesaren eta bestelako gaixotasunen prebentzioari buruzko liburuxkak, dvd-ak eta abar zabaltzea, elkarbizitza sustatzeko proiektuak aurrera eramatea...

- (5) KULTURA: Kontuan izanik, kultura hitzak hainbat arlo ezberdin barne biltzen dituela, euskal gazteriak musikaren inguruan duen gustuari eutsi diote. Beraz, musika da gazteen eta gainerako adin tarteen arteko desberdintasunik handienetako bat. Gainera, gauza bera gertatzen da musika entzuteko lantzen den gailuekin. Baina

aurretik aipatu bezala, kulturak bere barneak beste hainbat aspektu ditu musikaz gain, eta gazteen presentzia arte galeria, erakusketa edota arte eszenikoetan nahiko urria izaten da. Hala ere, bertsozaletasuna oso handia da 25 urte beherako gazteen artean gainontzeko herritarren artean baino. Beraz, euskal gazteen artean musika, filmak eta bertsolaritzaz gain, kulturaren beste aspektuetan presentzia urria delarik, hau izango litzateke beharrik nagusia. Behar horiei erantzuteko asmoz, eginkizun hauek lehenesten ditu planak:

- Are eta gazte gehiago murgilaraztea kulturean.
- Sortzaile gazteei aukera gehiago ematea eta hauen izaera sustatzea.
- Kulturaren alorreko materialak sortzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko orduan, hizkuntza nahiz kultura aniztasuna kontuan izatea eta hori egitean, euskara sustatzen saiatuz.

Helburu estrategikoei dagokionez hurrengoa da aipatu beharrekoa:

- Are eta gazte gehiago kulturean murgilaraztea.

Kultur sailari dagokionez, Kimu programa aipatu beharra dago. Donostia 2016k sortutako ekimena da beti ere, kontuan hartuz Euskal Kultur erakundearen baitan kokatzen delarik. Programa hau gazte zein haurrei zuzendurik dago eta honen xedea, arte eszenikoetan trebatzeko aukera eskaintzea da. Programa honek eskaintzen duen aukera oso eraginkorra izan daiteke; izan ere, arte eszenikoek gazteenen formakuntza pertsonal zein intelektualean berebiziko garrantzia dute eta gainera, aisialdirako errekurtso bikaina izan daiteke. Hauek dira kultura sailak proposatzen dituen programak: Gazteen artean irakurzaletasuna eta liburutegi publikoen erabilera sustatzea, beste plan eta programa batzuekiko elkarlana sustatzea, Dantzan Bilaka programan parte hartzea, Gazteakera ataria elikatzea eta sarean hedatzea...

(6) GAZTE AISIALDIA: Aisiari dagokionez, bi barne aspektu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, kirola eta bestetik, aisialdia. Gai hauen inguruan egindako diagnostikoak hainbat emaitza ondorioztatu ditu. Esate baterako, kirolaren kasuan, gazteen ardiak baino gehiagok kirola egiten dute eta eskola kirola (lehen hezkuntzan klasetik kanpo, talde kirolean parte hartzeko aukera) izango litzateke honen erantzule zuzena. Eta bestetik, aisialdiaren kasuan, egunean hiru ordu libre izan ohi dituzte eta euskal gazte gehienak, lautik hiruk alegia, lagunekin egoteko aprobetxatzen dituztela diagnostikatu da. Baina horrek ez du esan nahi bai kirol esparruan eta baita aisialdiaren esparruan beharrik ez daudenik. Izan ere, hauek dira kirol arloan diagnostikatu diren beharrak:

- Gazteek eta emakume gazteek batez ere, kirola unibertsaltasunez eta inklusioz egin dezatela sustatzea.
- Nerabearoan kirola egiteari utzi dioten pertsonen kopurua murriztea, bereziki nesken artean.

- Kirolaren bidez balio positiboak helaraztea, planifikatutako hezkuntza ekintzen bitartez.

Aisialdiaren inguruan diagnostikatutako beharrak hauek izanik:

- Hezigarriak diren eta kontsumismoan oinarriturik ez dauden aisialdiko jarduera gehiago eskaintzea.
- Gazteek ezagutu ditzatela aisialdirako eskaintzen dituzten aukera guztietatik, hezkuntzarako, sortzeko, berritzeko eta kritiko baliagarriak izateko diren horiek.
- Gazteen parte hartzea babesten jarraitzea.
- Gazteekin edo gazteentzat lan egiten duten elkarten lana babestea.
- Gazteen artean boluntarioritza sustatzea.
- Aisialdiko jardueretan, euskararen ezagutza eta erabilera parekatzea.

Aipatu berri diren kirolaren eta aisialdiaren beharren aurrean, ezinbestekoa da lehenetsi dituzten besteak beste, gazteen artean kirola sustatzea; kirola sozializatzeko bidea eta aisialdirako jarduera osasungarria izan daitekeelarik, kirol maila guztietan (batez ere, oinarritzako kirolean) gazteek aisialdiaz gozatzeko dituzte jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea; genero berdintasuna oinarri hartuz, gazteak ere eta ekintzaileago izan daitezela ahalbidetzea eta gazteen ekimenak babestea haien izaera edozein delarik; eta azkenik, aisialdirako jardueretan euskara oinarri izatea honela beste erabilera sustatzen delarik.

Horien harira helburu estrategiko batzuk ezarri dira:

- Gazteen artean kirola sustatzea, maila guztietan.
- Aisialdiaz gozatzeko gazteek dituzten jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea.
- Banaka nahiz taldeka, gazteak ere ekintzaileago izan daitezela sustatzea eta gazteen ekimenak babestea.
- Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriazko jarreretatik seguruenean eta aske egongo diren aisialdirako guneak eta tokiak sustatzea.

(7) KONTSUMOA: Kontsumoaren azpialal honetan, mugikortasunari garrantzi guztia emango ziolarik, ikerketa batean oinarritutakoaren ondorioz, gazteek kontsumoaren inguruan dituzten beharrak diagnostikatu ziren; horien artean, garraibide publikoaren aniztasuna handitzea eta baita oinez edo bizikletaz toki ezberdinetara iristeko aukera ematea euskal gazteei. Horren harira, gazte planak lehenetsun batzuk ezarri ditu beharrei dagokionez. Esate baterako, guztiontzako garraibideak, garraibide eraginkorrak, seguruak eta lehiakorrak. Gainera, ezinbestekoa da garraibide osasungarriak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrak izatea. Baina, aurretik aipatutakoa bete ahal izateko, gazteek motordun garraibide pribatuen ordez beste

garraibide mota batzuk erabiltzearen oztopoa gainditzea funtsezkoa da. Horretarako, azpiegiturak hobetzeaz gain, sentikortzearen eta kontzientziaz baliatuz, pribatu eta genero ikuspegiak laketan bat egitea ezinbestekoa da.

Gazte planak honen aurrean helburu estrategiko batzuk planteatzen ditu. Esate baterako, motordun garraibide pribatuen aukerako beste garraibide batzuen azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea, sentikortzearen eta kontzientziazioaren bidez, motordun garraibide pribatuen aukerako beste garraibide batzuk erabil ditzatela sustatzea eta espazio publikoa genero ikuspegitik diseina dadila sustatzea, oztopoak ezabatuta.

Ondoren, helburu estrategikoak planteatu ostean, plan hau gauzatu ahal izateko ebaluazio metodologiko bat aurrera eramatea funtsezkoa izan da bi fasetan banatuz: Lehenengo faseak etengabeko jarraipena luzatzea izango du helburu, horretarako, programazioaren betetze maila ebaluatuko delarik. Hori lortu ahal izateko, lehenik eta behin, sail bakoitzaren konpromiso finkoak bilduko dira eta jarduera bakoitzari buruzko xehetasun gehiago jasoko ditueran agiri bat beteko da. Horren bidez, ekintzak eta helburuak modu egoki batean zehaztuko direlarik eta aurrekontu partida jakin bat esleituko zaielarik, homologatutako ebaluazio adierazleak erabiltzeaz gain. Behin hori eginda, ekitaldi bakoitzean burututako ekintzei buruzko txosten bat egingo da bertan, esku-hartze bakoitzaren emaitzen berri emango delarik, egindako gastua zehazteko eta ebaluaziorako garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako datu batzuk txertatzeko. Bi txosten horiek, gazte politika integralen bestelako datu batzuk gehitzeaz gain, sailen arteko batzordeak bere oniritzia eskuratu beharko du. Bigarren faseak barnebilduko du Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte planak 2014/2016 urteen artean izan duen bilakaeraren azken ebaluazioa eta adierazleetan gauzatu diren aldaketak balioetsiz helburuen eta xedeen lortze maila zehazte aldera.

Plan honek bestalde, koordinazioa bultzatu eta garatzeko sortu den gazteen euskal behatokian ere parte hartzen du. Bertan, gazteen egoeraren diagnostikoa lantzen da, politiken inaktuaren jarraipena egin eta gazte planaren area bakoitzari buruzko informazioa ezagutarazteaz gain.

2.4. Erakundeak

Erakundeei dagokionez, aurrez azaldu ditugun politika eta planak martxan jartzen dituzten erakunde publikoei buruz ari gara hitz egiten.

Planen eta programen barnean azaldu dugun bezala, gazteen politikak martxan jartzen dituen erakundeetariko bat **Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)** da, Eusko Legebiltzarrak Maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen bitartez sortu zuen Zuzenbide Publikoko Erakundea. Legebiltzarreko lege batek arautu bazuen ere, EGK topagune autonomo bezala funtzionatzen du. Gaur egun, 60 elkartek osatzen dute EGK eta beste hamaika talde eta mugimendu

sozialekin harreman estua du Kontseiluak. Elkarte horien artean Atzegi, Once, EDE fundazioa, Gazteleku, Hezkide eskola, Lurgorri, etab. daude.

Hauetz gain, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko bazkide ez diren baina EGK-rekin lan-harreman estua zein aldian aldikoa duten elkarte, mugimendu, kolektibo eta erakunde ugari daude, beste eragile bezala ezagutuak direnak. Hauen artean, **Aisi Hezi Fundazioa, Cáritas, Comisión Anti-Sida, Kakitzat, Zutik**,...eta **beste hainbat eragile** daude.

EGK-ren baitan dagoen lan-talde bat Astialdi Foroa da, 17 astialdiko eskolek eta 10 federazioek osatzen dutelarik. Hauek lurraldeka egiten dute lan, hiru topagune izanda: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Foro honen bitartez, EAEko lurralde bakoitzeko astialdi eskola eta federazioak hileroko biltzen dira bere kezka eta proiektuak amankomunean jartzeko. Gazteriaren Kontseiluak Gazteen parte-hartzerako gida aurkezten du, hauen parte-hartzea bultzatzeko gakoekin egin den gida izango litzateke, oso sakona baina dinamikoa eta erraza irakurtzen dena. Gida egiteko talde mota ezberdinak hartu dira kontuan: formalak (elkartetatik alderdi politikoetara) eta ez formalak (asanbladak, erregistratu gabeko mugimenduak edo plataformak). Argitalpen honetan ezaugarri hauekin Euskadi mailan egiten den lehena izanik gazteek egiten dituzten ohiko galderari erantzuten zaie: zergatik parte-hartu eta non?, zer gertatzen da nire talde erregistratzen ez badut? nola sor dezaket elkarte, kooperatiba, kirol kluba, konpartsa edo asanblada bat? nola kudeatu talde formal edo talde ez formal bat? zer agiri behar ditut? zein da kostua? nora joan behar naiz?

EGK-k ia 30 urte daramazki esparru guztietako (politika, hezkuntza, lan eskubideak, astialdia, kultura) elkarteekin lan egiten. Gaur egun, 60 gazte elkarte baino gehiago elkartzen ditu eta euskal gazteriarekin lotura duten eragileekin lan egiten du zuzenki. Harreman honi esker, parte-hartzeko edo talde bat martxan jartzeko gazteek dituzten kezkak zehaztu ditugu, orain argituta gelditzen diren zalantzak.

Zazpi arlo teknikotan ibiltzen dira lanean Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan, hala nola, administrazioa, hezkuntza formala/ez formala & Astialdi Foroa, Enplegua eta etxebizitza, Parte-hartzea, Komunikazioa, Bakea eta Bizikidetzeta eta Berdintasuna. EGK-k hainbat ildo estrategikoetan oinarritutako lana gauzatzen du, esaterako: gazte elkartegintza eta partaidetza bultzatu edota gazteen bizi baldintzak hobetzeko lan egin.

Gazteen politikak martxan jartzeaz arduratzen den beste erakunde publiko bat, **Gazteen Euskal Behatokia** da, eta gazteria zertan den eta zein bide daraman, momentu oro eta orokorrean jakiteko balio du. Tresna bat da beraz, administrazioek gazteria dela-eta egiten dituzten ekintzek zein eragin duten balioesteko aukera emango diguna. Gazteen egoera eta bilakaera unean-unean eta ikuspegi guztietatik aztertzeke sortu den berariazko zerbitzua da Gazteen Euskal Behatokia, horrela Euskadin gazte gaien eskumena duten herri-administrazioek oro har eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak aurrera eramandako jarduketan inpaktua eta eragina ebaluatu ahal izateko.

Oro har, Gazteen Euskal Behatokiari gazte gaietan ikerketa, informazio, dokumentazio, estatistika, zabalkunde, prestakuntza eta aholkularitza lanak betetzea dagokio. Era berean, herri-administrazioetarako lan egiten duten langileen gaikuntza sustatzen du, eta gazte gaien arloko oinarritzko, mailakako eta etengabeko prestakuntza bermatzen. AGINDUA, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko. Helburuak honako hauek dira:

- Agiri-funts bat osatzea. Gazteen arazoen berri emateko balio behar du, zuzenean nahiz zeharka.
- Gazteri horren joera berriak, aldaketak, eta joera eta aldaketa berri horiekin batera datozen edo doazen beste faktore batzuk aztertzea.
- Prestaketak egiteko edo bideragarritasuna ezagutzeko ikerketa eta azterlanak egitea, aditu-bilerak antolatzea eta, beharrezkoa bada, lan-taldeak osatzea.
- Prozesu horien berri zabaltzeko ahaleginak egitea, eta, hala egokitzen bada, gazteei buruzko aldizkariak egitea.
- Gazte-kontuak direla-eta, erabakiak hartzen dituzten agintarien, ikerlarien, profesionalen eta beste eragile batzuen artean informazioa bata besteari emateko bideak erraztea.
- Beste erakunde eta organismo batzuei gazteei buruzko aholkuak ematea.

Hurrengo pertsonen bideratuta dago haien lana, batetik, gazteriaren inguruko politiketan lanean diharduten arduradun politikoentzako eta teknikarientzako da, bai Eusko Jaurlaritzako, bai foru-aldundietako, bai udaletakoentzako eta bestetik, gazte-kontuetan lanean diharduten profesionalentzako, eta berdin dio entitate publikoetan nahiz pribatuetan aritzen diren.

Beste alde batetik, hurrengo zerbitzuak eskaintzen dira: bibliografia eta agiri berezituak, gazteriaren arazoei buruzko aholku-zerbitzua, gazteriari buruzko agiri-buletina, prestakuntza-proiektu urterokoa, bai Administrazioako politikari eta teknikari arduradunei, bai gazteriaren arloan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuetako profesionalen zuzenduta, biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, eztabaidak eta halako gertakariak antolatzea, txosten teknikoak egitea, euskal gazteriari buruzko ikerketak eta txostenak eta gazteriaren inguruko adierazle sistema on line.

Bestalde, **Euskadiko Gazteria Zuzendaritza** legoke. Eginkizun bezala ondoko hauek dituen: Gazteria Zuzendaritzari, dekretu honek oro har esleitzen dizkion egitekoen gain, honako hauek dagozkio:

- Gainerako erakunde publikoekin eta gizarte-eragileekin batera, gazteak behar bezala gizarteratzeko jarduerak sustatzea.
- Gazteriako politika integralak garatzea, erakundearteko eta sailarteko lan-taldeak koordinatuz.
- Gazteriaren egoeraren gaineko informazioa eta dokumentazioa bildu eta hedatzea, bai eta horren gainean egoki iritzitako ikerketa eta azterlanak egitea ere.

- Gazteria, denbora libre eta aisiaren arloko eta haur izatea zaintzeko eta haurtzaroan denbora libre erabiltzeko politiken arloko beharrianak aztertzea, eta arauzko neurriak proposatzea.
- Aisiaren erabilera sozial, kultural eta hezitzailea sustatzeko planak lantzea, bereziki zainduz hizkuntza normalizazioaren ikuspegia.
- Arlo hauetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lotutako zuzeneko ekintzari dagozkion egitekoak betetzea:
 - Gazteentzako informazioa eta dokumentazioa, haur eta gazteentzako aterpetxeak eta instalazioak, gazteentzako turismoa eta gazteentzako gainerako zerbitzuak.
 - Gazteentzako Europako egitasmoak eta gazteen arteko trukeak.
 - Gazteriaren arloan bete beharreko gainerako egitekoak.
- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntzan, dinamizazio soziokulturalean eta haur eta gazteei zerbitzuak emateko zentroetan lan egiten duten pertsonen ezaugarriak zehaztea, eta horien prestakuntza bultzatzea.
- Gazteen artean asoziazionismoa eta boluntariora sustatzea, Gizarte Zerbitzuen
- Zuzendaritzarekin koordinatuta.
- Gazteriako politika integralen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Gazteriaren Euskal Behatokiari esleitutako egitekoak gauzatzea.
- Gazteriaren arloan interes komunekoak diren jardueretan, Estatuko, Europako eta Europaz gaindiko erakundeekin lankidetzan jardutea.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailea, otsailaren 2ko 14/1998 Dekretuak arautua, Gazteria Zuzendaritzari atxikita egongo da eta Gazteria Zuzendaritzak zuzendu eta bideratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremanak. Hori dela eta, Gazteriako zuzendaria izango da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria, maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2.5. Gizarte langilearen lana

Gizarte langilearen lanaz hitz egiterako garaian, lehenik eta behin, aipatzekoa dela deritzot, burututako elkarrizketaren bidez aztertutako Gazteen Euskal Behatokian, gizarte langileen presentzia eza egotea. Zentzu honetan, beharrezkotzat joko nuke, horrelako lan-eremu batean gizarte langile baten papera behintzat egotea.

Hortaz, gizarte langileek gazte esparruan egiten duten lana aztertzeko beste iturri batzuk erabili behar izan ditut, beste instituzio batzuetan jarduna kontuan hartuz. Oro har, esan dezaket, profesional hauek egiten duten lana nahiko orokorra dela, hainbat aldagaiekin lan egiten dutelarik. Gainera, gazteen arloan lan egiten duten gizarte langile askok ez dute zehazki koolektibo honekin lan egiten, hau da, modu zuzen batean, beste eremu batzuetan kokatzen dira. Aipaturiko eremu hauek gehien bat, txosten honetan zehar aipatu ditudan esparruak dira; (1) etxebizitza, (2) osasuna, (3) hezkuntza, (4) enplegua eta (5) gazte aisialdia.

(1) **Etxebizitza esparruari** dagokionean, gazteriak orokorrean emantzipazio prozesurako zailtasun handiak izaten dituztela agerikoa da, hortaz, Etxebide eta Alokabide zerbitzuetara jotzera derrigortuak ikusten dira. Zerbitzu honetan lan egiten duten gizarte langileek, gazte hauen egoeraren diagnostiko bat egin behar dute, ondoren pertsona hauei egokitutako etxebizitza bat bilatu ahal izateko, edo etxebizitza bat lortzeko baldintzak betetzen dituzten ikusteko.

Beste alde batetik, (2) **osasunaren arloan** dauden gizarte langileak ditugu. Kasu honetan, paper oso garrantzitsu bat betetzen dutela esan dezakegu; esaterako, lehen arreta deitzen den zerbitzua edozein osasun zentrotan, prebentzioaren eta hezkuntza sanitarioaren eginkizuna izango du honela, gizartearen osasun egoera hobetzeko. Beste alde batetik, Gizarte Langileek “Servicio de atención al paciente” deitzen den zerbitzua eskaintzen du. Informazioa, erreklamazio eta sugerentziak, giza eskubideen informazioa, proposamenak... bezalako eginkizunak egiten dira zerbitzu honetan.

Horrez gain, (3) **hezkuntza sisteman** lan egiten duten gizarte langileak daude. Hauen funtzioa ikasketekin trabak izaten dituzten ikasleen (etorkinak direnak edo etxean zailtasunak dituztenak) egoeraren inguruko diagnostiko bat egitea da, eta horrekin batera haientzat baliagarriak diren konponbideak bilatzen dituzte. Gainera, sistema honetan sortzen diren ezberdintasunak ikasleen artean murrizteko estrategiak bilatzen dituzte. Aipatu beharra dago Gizarte Langileen papera ikastetxeetan nahiko urria dela behar handia egon arren, honen adibide argia ikusi nuen, Jardute Profesionalerako Sarrera irakasgaiaren hezkuntza esparruan lan egiten zuen gizarte langile batek emandako hitzaldian.

(4) **Enplegu arloari** dagokionez, gizarte langileak bi paper nagusi betetzen dituztela esan daiteke, arlo hau enpleguan eta prestakuntzan banatzen baita, beraz, enpleguaz arduratzen diren gizarte langileak normalean Lanbiden lan egiten dute, eta bertara gazte bat gerturatzean langabezi zerrendara apuntatzen dute, modu honetan bere datuak bertan gordeta geratzen dira, eta bere kurrikulumari buruzko informazioa ematen dute bertan ere. Bestalde, gazte hauen ezaugarriak kontutan hartuta formakuntza eskaini edo haien ezaugarriekin eta ikasketekin bat egiten duen enplegu bat bilatzen laguntzen du gizarte langileak.

Amaitzeko, (5) **gazteen aisialdiari** loturiko lana burutzen duten gizarte langileak ditugu, kasu honetan, gabezia handiagoa dagoela esan dezakegun arren. Aisialdia gazteriaren kolektiboan garrantzi handia duen esparrua da, askotan haien egunerokotasunean izaten dituzten arazoak, edo haien bizitzan zehar izaten dituzten zailtasunak, haien aisialdian egindako ekintzekin erlazionatuta egoten dira. Gizarte langileen papera hemen, aisialdirako akbitate ezberdinen sorkuntza da gizarte etxeetan edo udaletxetan. Gizarte langileak aurretik diagnostiko bat egiten dute, eta hainbat ekintza proposatzen dituzte diagnostikoan ateratako ondorioak kontuan hartuta. Bukatzeko, aipatzekoa da gazteei zuzendutako hainbat elkarte daudela, eta aurretik esan bezala gazteei zuzendutako kontseilu bat dago. Honetan, gizarte langile batzuek parte hartzen dute, eta hauek informazioa eta aholkularitza ematen diete gazteei.

Laburbilduz, agerikoa da, gizarte langileek gazteekin lan egiterakoan, beste esparru batzuetara bideratutako lana dela, hau da, gazteek ez dute gazteriaren esparrura jotzeko aukerarik, baizik eta, beste eremu batzuen bidez (etxebizitza, aisialdia, hezkuntza...) jo behar dute gizarte langileengana.

2.6. Erabiltzailearen profila

Gazte esparruan dagoen erabiltzailearen profila analizatzeko orduan, hasteko, kontuan izan behar da, orokorrean, egungo gazteriaren bizimodua ez-egonkortasunagatik ezaugarritua dagoela. Izan ere, gazte esparruari eragiten dioten eremu guztiak egoera oker batean daudela aipatuko nuke.

Elkarrizketa burutzerako garaian, Gazteen Euskal Behatokian lan egiten duen profesionalarekin hitz egin ostean, erabiltzailearen perfil zehatz bat zehaztearen zailtasunak handiak direla ondorioztatu dut. Beraz, aipaturiko bi ideia hauek kontuan izanik, esango nuke, gazte esparrura bideratuta gizarte politika, programak zein aurretik azaldutako EAEko I., II. eta III. Gazte Planak, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden gazte guztiei bideratuta daude.

Gazteak gazte izateagatik ez nondik datozen kontuan hartzeagatik, euren etnia, kolore, maila ekonomiko edo baztertutako gazte gisa. Hala ere, egia da hainbat programa adin jakin batera bideratuta daudela; Gazte txartela, adibidez, 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, gazteen boluntariora-alorrak, berriz, 18 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. Kooperanteak adineko jendea joaten da, 18 urteko jendea ez da joaten 22 urtetik 26ra, baina adin tartea aldatzen joan da. Programak aurrera eramaten dituzten teknikariak eta gazteriaren zuzendaritzatik ulertzen da mota honetako programetan parte hartzeko gutxienezko heldutasun pertsonal handiago bat behar dela eta horrekin batera konpromisoak hartzeko kapazitatea. Gazte Planaren onuradunen profila, zabalagoa eta zehatzgabeagoa da oraindik; izan ere, hainbat sailtako informazioa jasotzen da plana sortzeko eta sailek gazte-definizio desberdinak dituzte, beren errealitateagatik, argi eta garbi justifikatuta, bai eta beren lehentasunengatik ere.

Behatokian egiten den lana eta sortzen diren dokumentuak edo ikerketak, aldiz, profesionalei zuzenduta daude, gazteekin lan egiten duten profesionalei batez ere; irakasleak, gizarte langileak eta politikaren teknikariak. Taldea, dokumentu, informazio eta egindako elkarrizketak kontrastatu ostean, politika eta programa hauen onuradun nagusiak emantzipatzeko adinean dauden gazteak eta lana eskatzen duten gazteak direla uste dugu. Hala ere, azken urteotan tendentzia aldatzen joan da.

Ondorioz, esango nuke, erabiltzailearen profila gazteria orokorrean dela, hala ere, zenbait programa, plan edota politika zehatzak, gazteen adin-tartearen arabera antolatuta daude. Horrez gain, aipatu bezala, zenbait esparruetan, Euskal Gazte Behatokia kasu, gazteriarekin lan egiteko duten profesionaletara bideratuta dago.

2.7. Ebaluaketa

Behin gai honen inguruan Eusko Jaurlaritzak ematen dituen prestazioak ezagututa ditudan, hurrengo atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriari zuzendutako gizarte politika honen ebaluaketa burutuko dut. Horretarako, alde batetik, gizarte politika honen gabeziak edo hutsuneak identifikatuko ditut, eta bestalde, politika honek dituen alde onak edo positiboak zeintzuk diren ere azalduko dugu.

Lehenik eta behin, **gabeziak edo hutsuneak** aztertuko ditut. Hasteko, gazteriari zuzendutako gizarte politika honi antzeman dizkiodan gabezia edo hutsuneekin hasteko eta planei erreferentzia eginez, esango nuke politika honek dituen planak oso orokorrak direla. Hau da, gizarte politika honek burutzen dituen planek ez dituzten kontuan hartzen gaur egun gazteen artean dauden profil ezberdinak bere osotasunean, izan ere, gazteen artean bereizgarri desberdinak dituzten pertsonak aurkitzen dira, besteak beste, atzerrikotasuna, klase sozialak edota aniztasun funtzionala. Ezaugarri guzti hauek aintzat ez hartzeak, gazteak zaku berdinean sartzea dakar eta horregatik, gazteei zuzendutako planek aspektu horiek alde batera uzten dituzte unibertsalak izanik. Modu honetan, gazte orok izan ditzazkeen arazo zein egoerari erantzun osoa emateko zailtasunak eta eragozpenak egon daitezke.

Horrez gain, politika honek gazteei eskaintzen dizkien laguntzak eta prestazioak jasotzeko ezarrita dituzten baldintzak ez dira errealak edo egiazkoak, izan ere, hainbat gaztek ezintasunak izan ohi dituzte laguntza horiek jasotzeko. Esaterako, Diru-Sarrera Bermatzeko Errentaren kasuan, gazteek hura jasotzeko izan ahal dituzten oztupoak eragin ditzazketen bi balditza identifikatu ditugu. Alde batetik, 23 urte baino gehiago izatea da eskakizuna, beraz, gazteagoak diren kideek gazteek ezin izango dute prestazio hau jaso. Gainera, urtebetez euren etxebizitza propioan errolatuta egotea eskatzen dute, orduan, urtebete baino gutxiagoz euren etxean bizi direnek edota gurasoen zein beste edonoren etxebizitzan bizi direnek ezin izango dira laguntza horretara heldu. Honek lotura zuzena izan dezake gaur egun gazteen artean aurkitzen den langabezia-tasa altuarekin, izan ere, 2021. urtean tasa honek igoera bat izan du %11,1ra heldu delarik. Modu honetan, langabezia egoera dauden gazteek zailtasun handiagoak dituzte etxebizitza propioa izateko eta, hortaz, laguntza hau jasotzeko ezintasunarekin aurkituko dute euren burua.

Bestalde, azken urteetan zehar ikusi izan da gazteriak duen inizatiba eta motibazioa baxua dela eta jaisten ari dela urteek aurrera egin ahala. Aurreko hamarkadekin alderatuz, gaur egungo gazteek euren eskubideak defendatzeko eta bizi dezaketan egoera eskas eta prekarioak salatzen egiten dituzten aurrerapausuak urriagoak dira eta situazio horiei aurre egiteko zegoen mentalitate hori ez dago hain garatua. Hori dela-eta, gazteen artean gizarte politika honek dituen planen eta programen inguruko ezagutza-maila apala da eta horrek ondorio zuzena du gazteen bizitzan. Hala ere, ezin dezakegu esan ezagutza-maila eskas horren erantzukizun guztia gazteek dutela. Erakundean eta instituzioen aldetik, gizarte politika honen inguruko informazioa jasotzeko bide bakarra Eusko Jaurlaritzako weborrialdea aztertzea da. Gerta daiteke zenbait gaztek ez izatea eskuragarri baliabide hori edo are gehiago, politika horren berri ez izatea eta ondorioz, laguntza horiek jasotzeko saiakera ere ez

ezin dute egin. Hau da, gazteei ez zaie adierazten eta azaltzen euren zuzendutako gizarte politika zehatz bat dagoela eta horren bitartez, bizi duten egoera latzei aurre egiteko behar dituzten laguntza eta prestazioak jaso ahal dituztela. Beraz, bi alderdien aldetik datorren arazo edo gabezia bat dela esan daiteke.

Aurretik egindako diagnostikoari erreparatuz, argi ikus daiteke gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren gazte asko egoera prekarioan aurkitzen direla eta nahiz eta politika hau martxan dagoen, egoera hori ez dela aldatzen. Hau da, gazteen artean dagoen langabezia-tasa eta ondorioz, emigratio kopurua altua da. Gainera, EAEn geratzen diren gazteen batazbestekoak hileroko eskuragarriak dira. Beraz, datu guzti hauek azalduz, esan dezakegu nahiz eta gazteei zuzendutako gizarte politika bat martxan dagoen, honek ez duela lagundu gazteek bizi duten egoera latza hobetzen, bere helburua hori den arren.

Azkenik, txosten hau burutzeko gauzatu dudan elkarrizketei esker, jakin izan dugu politika honetan parte-hartzen duten eta eragin handia duen Euskal Gazte Behatokiak langile batek politika honi identifikatzen dizkion gabezia edo hutsuneak zeintzuk diren. Gazteen Euskal Behatokiak zuzendariak esandakoa aztertuz, erakunde honetan lanean guztira 6 pertsona daudela eta nahiz eta orokorrean ondo moldatzen diren, batzuetan lan karga handia dutela ondorioztatu dezaket. Hau da, noizbehinka lanpetuta dabilta eta langile bakoitzak duen lan karga oso altua izaten da. Honek, eragin negatiboa izan dezake, azken finean, lanpetuta egoteak atzerapenak sortu ahal dituelako eta ondorioz, gazteen beharrei ez zaie behar bezala erantzun edo ez dira epeak errespetatzen. Gainera, ez dago gizarte langilerik lanean eta honek aurretik aipatutako eragin edo ondorio berdinak izan ditzazke gazteengan. Hots, haiekin egoki lan egiteko ezinbestekoak diren gaitasunak eta teknikak ez dira presente egongo eta horrek eragina izan dezake hartuko diren erabakietan.

Horrez gain, Gazteen Euskal Behatokiak gazteen inguruko datuak eta informazioa eskuratzen du, baina gazteekin lan egiten duen arren, lan hori ez da zuzenean haiekin. Ondorioz, gazteen eta Behatokiaren artean bitartekari lez lan egiten duen beste erakunde edo instituzio bat egongo da eta horrek egindako bitartekaritza erreala eta benetakoa izan behar da egiazko datuak lortu ahal izateko. Beraz, kasu honetan, hutsune moduan ikusten dugu Behatokiak gazteekin duen harremana edo haiekin egongo duen ekintza zuzena ez izatea.

Horrez gain, gaiaren inguruko **alde onak edo positiboak** identifikatu eta analizatu ditut. Hasteko, nahiz eta politika honek gazteentzako dituen planak orokorrak diren, esan beharra dago positibotzat hartzen dudan kolektibo honi zuzendutako plan eta programak sortzea eta horien helburuak eta ekintzak onuragarriak direla. Hau da, gizarte osoa talde berdinean sartu beharrean eta denoi laguntza eta prestazio berdinak eskaindu beharrean, aintzat izatea ezaugarri eta faktore zehatz batzuen ondorioz, kolektibo ezberdinak daudela egokia iruditzen zaigu. Are gehiago, errealitate hori kontuan izanda, gazteei bideratutako gizarte politika doi bat planteatzea eta aurrera eramatea positiboa da. Bai eta eurentzako planak egotea baikorra ere. Programen eta planei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak hiru plan burutu ditu eta hortan lanean ez da bakarrik Jaurlaritza egon, Foru Aldundiekin eta Udaletxeekin elkarlanean aritu dira eta horrek eragin positiboa izan dezake, azken finean, Aldundiak eta Udaletxeak euren

herri zein hiriko gazteekin gertuago aurkitzen dira eta haien errealitatea bere osotasunean ezagutzeko aukera gehiago dute. Ondorioz, gazteei laguntzeko hartu beharreko erabakietan bideratuagoak egongo dira eta horri esker sortutako diren planak zuzenagoak eta eraginkorragoak izango dira.

Gainera, plan hauek batez ere gai zehatz batzuei bideratuta daude eta gai horien inguruan gazteek izan ahal dituzten arazo zein zailtasunak asetzea eta aurre egitea bilatzen dute. Plan hauek gaur egungo gazteek dituzten oztopo gehienei erantzuteko planteatuta daude, hau da, ezagutzen dute gazteek oraingo egoeran dituzten eragozpenak eta horiei aurre egiteko planak proposatzen eta burutzen dituzte, besteak beste, hezkuntza, enplegua eta osasun arloan. Hortaz, esango nuke politika honek errealitatea ezagutzen duela eta egoera horiei erantzuna emateko helburua duela.

Horrez gain, azken hamarkadetan Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak kontuan izan dituela eta euren bizi-iraupenean laguntzeko prest daudela erakutsi du, izan ere, hainbat ekintza gauzatu dira, besteak beste, Gazte Planak, biltzarrak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

Gizarte politika honen baitan dauden erakunde publiko ezberdinei erreparatuz, ikus dezakegu hiru erakunde nagusi aurkitzen direla eta euren artean elkarlanean ari direla. Hots, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, Gazteen Euskal Behatokiak eta Euskadi Gazteria Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen bizi-maila ezagutzeko eta hobetzeko elkarrekin lan egiten dute. Beraz, elkarlan hori onuragarria da gazteentzako, ez baitago soilik erakundebaten menpe euren ongizatea eta horren hobekuntza. Modu honetan, gaur egungo euskal gazteen bizitzaren eta euren etorkizunaren inguruko ardura eta interesa dagoela adierazten da.

Bestalde, burututako elkarrizketetan gizarte politika honek dituen beste hainbat alde on ikusi ditugu. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Gazteria arloko zuzendariarekin izandako elkarrizketan, jakin izan dugu EAEn infantzia eta gazteriaren alorreko konpetentziak autonomia erkidegoek dituztela. Hau da, gazteei zuzendutako gizarte politika hau hemendik kontrolatzen eta lantzen da, Euskal Autonomia Erkidegotik eta ez Espainiako Gobernuak. Kontrol honen ardura autonomia erkidegoak izatea onuragarria izango da hartzaileekiko gertutasuna ematen delako.

Gainera, planak planteatzeko orduan gauzatzen den prozesua parte-hartzailea da, hau da, Gazteen Euskal Behatokiaren bitartez gazteekin harremanetan jartzen dira eta planak jarraituko duen bidea eta izango dituen helburuak zehazten dira. Orduan, esan dezakegu gazteek duten parte-hartzea planen horien lanketan eta sorkuntzan handia dela. Beste alde batetik, Gazteen Euskal Behatokiko zuzendariarekin izandako elkarrizketatan bitartez, politika honen alde positiboren berri izan dugu. Erakunde publiko honek gazteen inguruko datuak jasotzen dituen heinean, gaur egungo gazteen egunerokotasunari egokitzeko beharra dauka, ahalik eta informazio gehien jaso nahi ezker. Hori dela eta, burutzen dituen inkestak online bidez egitea gazteentzako zein haientzako onuragarria da, azken finean, gazteak erosoago sentitzen baitira aurrez aurre egin beharrean; eta modu berean, erakundeak jasoko

dituen erantzunak anitzagoak izango dira. Honi loturik, erakundeak datu gehiago jasotzen baditu, gazteek bizi duten egoera ezberdinei erantzuteko aukera gehiago egongo dira, errealitatea sakonago ezagutzen dutelako. Hortaz, gizarte politika honen baitan horrelako erakundeak lanean aritzea eta gaur egungo gazteen situaziora egokitzea positiboa da.

Laburbilduz, gazteriari bideratutako gizarte politika honek zenbait alde positiboak dituela agerikoa da, horien artean, erakunde publiko ezberdinen arteko elkarlana gazteen bizi-maila hobetzeko helburuarekin eta gaur egungo gazteentzako zailtasun handiak sortzen dizkietan gaien inguruan planak eta programak landu eta aurkeztu direla laguntza eskaintzeko asmoz. Baina, ikus daiteke oraindik gazteek bizi duten egoera latza dela, batez ere emantzipazioaren eta enpleguaren inguruan, eta nahiz eta horri erantzuteko planak proposatu diren, ez dira nahikoak egoera horri buelta emateko. Orduan, gizarte politika honek identifikatu ditugun gabezia edo hutsuneak betetzea eta erantzun bat ematea ezinbestekoa da, gazteak baitra etorkizuna eta euren bizi-maila egokia ziurtatzea nahitaezkoa da.

2.8. Gomendioak

Lehenik eta behin, uste dut funtsezkoa dela administrazioaren eta gazteen arteko komunikazioa sustatzea, hau da, esan dezaket gazteriari heltzea konplikatu dela: bakoitzak bere aldetik joan ezker, ezinezkoa izango da elkarren arteko komunikazioa hobetzea. Bestalde, gehitu behar da administrazioak nola transmititzen dien informazioa Euskadiko gazteei. Oraindik gazte asko ezjakintasunean bizi direnez, ez dakite zer eskubide dituzten eta zer nolako planak eta programak egiten dituzten komunitateari laguntzeko, beraz buelta bat eman behar da komunikatzeko erari, hau da, informazio eskaintzeko erari zein eskuragarritasunari.

Honekin lotuta, laguntza lortzeko ezartzen dituzten baldintzak ez datoz bat gazteei laguntzarekin, hau da, laguntzak jasotzeko baldintza errealarik ez dago, beraz politikak berrikustea eta aldatzea guztiz beharrezkoa dira. Gai honekin jarraituz, proposatuko nuke, alde batetik alokairu kontratuak berrikustea ez izateko altuegiak, hala izan ezker gazte askok aukera galtzen dutelako emantzipatzeko. Beste aldetik, alokairu sozialeko pisuak bultzatzea gazteei hobekien egokitzen den alorra delako eta azkenik etxebizitza hutsak erabiltzearen aldeko sentsibilizazio kanpainak egitea proposatzen dut, horrela okupazioak izan ditzaken ondorio negatiboak edo estigmak saihesten ere saiatuko direlarik. Jakin badakit, gazte gehienak egoera prekarioetan daudela, horregatik beste gomendio bezala esango nuke etxebizitza duinak izatea giza garapena bermatzeko. Langabezi tasa altua dela eta, batez ere hirien periferietan alokairuak oso merkeak direlako gazte asko onartzen dute egoera hori independizatzeko helburuarekin.

Beste gomendio bezala, diagnostiko zehatzagoak egitea beharrezkoa ikusten dut, indarrean dauden programak oso orokorrak direlako ebaluazioan azaldu dudana bezala eta beraz ez direlako benetako errealitatera ailegatzen.

Azkenik guztiz beharrezkoa iruditzen zait Eusko Jaurlaritzako Gazteria arloan gizarte langile bat egotea, onuragarria izan arren beste arloko langileak egotea; monitoreak edo arlo soziokulturalean aritzen diren pertsonak osagarri bezala ikusten dugu. Gizarte langileak gainerako profitek ez dituzten tresnak dituela uste dut, gainera, gazteak ere gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen barruan sartzen diren profilak dira, eta horregatik kontraesankorra da sail honetan gizarte-langilerik ez egotea.

3. Ondorioak

Ondorioak modu osatu batean burutzeko, sarreraren planteatu dudan problematika lan osoan zehar landutako informazioarekin birformulatuko dut. Horrez gain, hasieran proposatutako hipotesiak egiaztatzea eta ezeztatzea da atal honen helburuan. Hau horrela, jasotako datu, iritzi zein informazioei esker gazteriarri zuzenduta dauden gizarte politiken inguruan ondorio batzuk aurkeztu ahal izateko.

Hasteko, **gaiaren problematika eta hipotesiak** birgogoratu eta analizatuko ditut, alde batetik, hasiera batean planteatzen nuen problematika hurrengoaren: “Pandemia hasi zenetik etorritako krisialdiarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan gazteriaren bizitzaren esparru guztietan emandako egoeraren okertzearen aurrean, bada gai Gazte Plana haien beharrianak asetzeko?”, bestalde, hipotesi nagusitzat hau jotzen nuen: “Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Gazte Planak zenbait ondorio positibo izan arren, orokorrean, gabezia nabarmenak ditu, ahulezia edo gabezia hauek gazteriaren beharrianak asetzeko gaitasun urria izanik.”, hari beretik, bigarren mailako hiru hipotesi proposatu nituen: (1) “Instituzioek Gazte Planaren zabalpena aurrera eramateko baliabide gutxi eskaintzen dituzte, honela, gazteriaren zati handi batek ezjakintasun handi bat izanik.”, (2) “Egungo gazteak familia zein instituzioekiko, Gazte Plana kasu, dependenteak dira. Honek, haien bizi-ereduan ezegonkortasuna ekarriz.” eta (3) “Pandemiarekin batera etorritako krisialdiak eragin negatiboa izan du gazteriarengan. Honen aurrean, gazte esparruari bideratutako gizarte politikak ez dira nahikoak izan.”

Problematikarekin hasiz, aipatzekoa da, diagnostikoarekin ikusitakoaren arabera, gazteriaren bizimodua nahiko ezegonkorra izateaz gain, okertze egoera batean dagoela, gainera, ebaluaketaren atalean azaldu dudana bezala, Gazte Planak gabezia nabarmenak dituztela agerikoa da. Bestetik, hipotesiei dagokionean, lehenik eta behin esango nuke, hipotesia nagusia baieztatu egin dudala txosten osoan zehar, beste alde batetik, bigarren mailako hipotesiei erreparatuz, Gazte Planaren inguruko ezjakintasunaren ideia baieztatzen dudana arren, esango nuke, instituzioak aurrera pausuak eman dituztela EAEko I.Gazte Planetik III.Gazte Planera zentzu honetan; bigarren hipotesiari dagokionean, argi dago baieztatu beharrezkoa dela, oraindik ere esparru honetan aurrerapen handiak egin behar direlarik; azkenik, esango nuke, pandemiak modu nabarmenean eragin duela bai gazterian bai gizateria osoan, hala ere, aurretik ere egoera kaxkarra zela agerian gelditu da txosten osoan zehar, bukatzeko, gazte esparruari bideratutako gizarte politikak nahikoak ez izan arren, plan eta programa askotarikoak planteatu izan dira.

Lan honetan ateratako **ondorio nagusia**, politika hauek ez direla gazteengana heltzen da. Honen bidez zera esan nahi dut, nahiz eta politika hauek izatez gazteentantzako bideratuak egon gazteak ez daukate haien inguruko ezagutzarik. Gazteak politika hauek gauza arrotz eta urruna bezala ikusten baidute eta ez baidaukate haien inguruko ezagutzarik. Orduan teoriarik oso ondo daude gazte plan hauek baina gero praktikan eraginkorrak ez direla esango nuke. Ondorio hau nire eta nire inguruko errealitateetan oinarrituz atera dezaket.

Bestetik, ateratako beste ondorio bat gazte planen inguruko informazio gutxi dagoenarena da, hots, informazio falta gutxi dagoelarekin esan nahi dudana politika hauen onuradunak askotan ezjakintasuna daukatela da. Izan ere, gaazteok askotan ez dakigu zeintzuk diren gure eskubideak, ez ditugu ezagutzen gaur egun indarrean dauden planak, ez dakigu nora jo behar dugun informazioa eskatzera eta apuntatzera... Beraz, oinarrian komunikazio arazo larri bat dagoela uste dut, eta horretan ere lan gehiago egin beharko litzateke. Uste dit informazio falta hau hein handi batean aurreko paragrafoan esandakoarekin bat datorrela, askotan gizarte politikak burutzen eta planteatzen diren heinean errealitateak kanpo doazela uste baitut, askotan administrazioa eta gizarte bananduta daudela, bi errealitate ezberdin biziz.

Horregatik garrantzitsutzat jotzen dut hurrengoko gazte plana gazteekin batera burutzea eta gazteriari ongi zabaltzeko kapazitatea edukitzea. Azken finean gazteentzako izateaz aparte gazteok egina izatea, inork ez baititu gu bezain ondo ezagutzen gure beharrak, horren bidez jarrera paternalistak alboratuz. Zailtasun desberdinei aurre egin behar dien belaunaldi bat gara, etengabeko bizibaldintzen hobekuntzaren etenari aurre egin behar diona eta aurre egiteko prest dagoena. Etxebizitza, enpleguari...dagokionez, gurasoekin alderatuz, desberintasun nabariak ditugun belaunaldi bat gara, baina alternatibak bilatu, parte hartu, eraiki, proposamenak burutu eta eskubideak defendatu behar duguna.

Bukatzeko, gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzeak edo galtzeak suposatzen duen arazoa orokortu da, gazteriaz gain beste kolektibo askotara hedatuz. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Hala ere, gazteriaren egoera nabarmenki txarra da orokortasunen aurrean. Alde batetik, emantzipazio tasa urriak, eta bestetik, pairatzen dituen lan baldintzak kontutan harturik, egoerak ez duelako hobetzeko itxurarik. Izan ere, arazo estruktural bat dela gazte prolematika ulertu behar dugu. Momentu honetan dugun sistema kapitalistari interesatzen zaio subjektu debalatu bat (batzuk) egotea zeinei lan indarra merkeago lapurtuko zaien, soldata miserable batzuen truke. Interesatzen zaio dinamika horrekin jarraitzeak aberastasuna handitzeak eragiten baitie eta horrekin lotuta boterea mantentzea. Gainera, gizartean egoera hau guztiz barneratuta dugu. Onartua dugu, gazteak, ikasleak garen bitartean soldata baxuak, kontratu gabeko lanak... izatea guztiz normalizatua dagoen errealitatea delako. Ulertzen delako gazteok ulertu behar dugun zeozer dela gure "lan bizitzaren" lehenengo urteetan geroago,

pixkat hobeagoak diren lan batzuk izateko. Nahiz eta lan “hobeagoak” diren lan hauek aztertzea beste lan baterako emango lukeen (logika kapitalistaren baitan langile klasea beti ere galtzen duena dela ulertu behar baitugu). Beraz, errealitate hau gainditzea soilik sistemaren suntsipenaren eskutik eta benetako berdintasunean oinarritutako klaserik gabeko sistema baten eskutik soilik lortuko dugu.

Azpimarratu beharreko beste puntu bat emigrazioarena litzateke. Gero eta gazte gehiago kanpora joaten dira eta itzultzen direnen kopurua gero eta baxuagoa da. Denborarekin demografia arazo oso larri bat izango dugu eta berandu izango da. Ondorioztatu daiteke ere, gazteek gaur egun bizitzen duten egoerari aurre egiteko, askotan kanpora joan behar direla lan duin bat bilatzeko eta beraien bizitza aurrera eramateko. Egia da ere, askotan kanpora joaten direnean jatorrizko herrian geratzen direla erroldatuta, bueltan etortzen badira diru-laguntzak jasotzeko aukera izateko. Egoera hau hobetzeko emantzipazio prozesua ahalbideratuko duten laguntza errealak behar ditugu. Nahiz eta esan bezala, hauek soilik hobekuntza bezala ulertzen ditugun. Hau da, arazoaren errora jotzen ez duten bitartean ez dute arazoarekin bukatuko.

4. Bibliografia

- Aisialdirako hezitzaileen eskolak. 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa (94-11-16 EHAA), batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.
- Euskadi.eus (2018). *15 eta 29 urte bitarteko biztanleria EAEn, sexua eta lurralde historikoaren arabera*. Hemendik eskuratua:
https://www.euskadi.eus/web01-a3estnpr/eu/contenidos/estadistica/obsjuv_spc_1_1/e_u_def/adjuntos/2018.shtml
- Euskadi.eus (2018). *Atzerriko nazionalitatea duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren, lurralde historikoen eta jatorrizko kontinentearen arabera*. Hemendik eskuratua:
https://www.euskadi.eus/web01-a2nekaza/eu/contenidos/estadistica/obsjuv_spc_1_5/e_u_def/adjuntos/2018.shtml
- Euskadi.eus (2018). *Pobrezia errealearen tasa*. Hemendik eskuratua:
https://www.euskadi.eus/web01-sedeep/eu/contenidos/estadistica/obsjuv_spc_3_4_3/e_u_def/adjuntos/2018.shtml
- Euskal Autonomia Erkidegoa. 170/1985 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa. Hutsen zuzenketak.
- Euskal Kultur Erakundea. (2016). *"Kimu" programa berria*. 2016/02/15, Donostia Kultura eta Euskal Kultur Erakundea Webgunea.
<https://www.eke.eus/eu/albisteak/aggregator/deialdia-kimu-programa-berriaren-karietara>
- Euskadi.eus (2014). *Programa Juventud Vasca Cooperante: Experiencias de cooperantes (fotos, blogs, entrevistas, etc) de 2016, 2015, 2014, 2013, 2012...* Gazteaukera.
<https://www.euskadi.eus/informacion/programa-juventud-vasca-cooperante-experiencias-de-cooperantes-fotos-blogs-entrevistas-etc-de-2016-2015-2014-2013-2012/web01-s2ing/es/>
- Eusko Jaurlaritza (1999). *EAEko Gazte Plana 1999-2001*. Vitoria Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2002). *EAEko II. Gazte Plana 2002-2005*. Vitoria Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Eusko Jaurlaritza (2016). *"Harrapazank" Programa*. 2016/02/14, Bilboko Udala Webgunea. <https://www.euskadi.eus/albisteak/20160129120030/zabalik-dago-gazteentzako-harrapazank-programan-izena-emateko-epaia/kulturklik/eu/web01-ejeduki/eu/>
- Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila (2007). *Gazteen adierazleak 2007*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalapen Sail Nagusia. Hemendik eskuratua: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0006200/gazteen-adierazleak/inf0006262_e.pdf
- EUSTAT (2021). *Euskal AEko 16-29 urte bitarteko biztanleen jarduera, enplegu eta langabezia tasak, sexuka (%)*. 2005-2020. Hemendik eskuratua: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0007400/euskal-aeko-16-29-urte-bitarteko-biztanleen-jarduera-enplegu-eta-langabezia-tasak-sexuka-/tbl0007469_e.html
- EUSTAT (2021). *Gazteria*. Hemendik eskuratua: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_311/opt_0/tipo_1/temas.html
- Emakunde. Eusko Jaurlaritza (2012). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*. 44-51.or. Eusko Jaurlaritzaren Argitalapen Sail Nagusia. Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/ad_juntos/pub.violencia.machista.contra.mujeres.eus.pdf
- Gazteaukera (2021). *Aisia, kultura eta kirola*. Euskadi.eus. Hemendik eskuratua: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7650x/eu/estadistikak/listaV1.apl?idioma=e&indic=12&tema=193&ambito=1>
- Gazteaukera (2020). *Emantzipazioa eta etxebizitza*. Euskadi.eus. Hemendik eskuratua: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7650x/eu/estadistikak/listaV1.apl?idioma=e&indic=10&tema=255&ambito=1>
- Gazteaukera (2022). *Gazteaukera webgunea*. <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/hasiera/>
- Gazteaukera (2020). *Hezkuntza*. Euskadi.eus. Hemendik eskuratua: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7650x/eu/estadistikak/listaV1.apl?idioma=e&indic=2&tema=5&ambito=1>
- Gizarte eta kultura dinamizatzaile. Agindua, 1998ko ekainaren 12koa (1988-06-29 EHAA), dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzen dituena.

- Gizarte eta kultura Sustatzaileen Eskolak. 47/88 Dekretua, martxoaren 1ekoa (1988-03-16 EHAA), martxoaren 1ekoa, Gizarte eta Kulturarako Zuzpertzze-Eskolen onarpena arautzen duena.
- Patiño Torres, J. F. (2009). *La juventud: una construcción social-histórica de Occidente*. Revista Científica Guillermo de Ockham, 7 zk, 75-90.or. Hemendik eskuratua:
<http://www.revistas.usb.edu.co/index.php/GuillermoOckham/article/view/546/348>
- Taguenca Belmonte, J. A. (2009). *El concepto de juventud*. Revista Mexicana de Sociología, 71 zk. Hemendik eskuratua:
<http://www.scielo.org.mx/pdf/rms/v71n1/v71n1a5.pdf>
- 239/1999 DEKRETUA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzkoa.
- 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko "Gazte-txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko dena.
- 62/2009 Dekretua , martxoaren 10ekoa, Euskadiko "Gazte-txartela / Carnet joven" eratu eta arautzeko den Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.
- 16/1997 Dekretua, otsailaren 4koa. Honen bidez, Euskadiko "Gazte-txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko Dekretua moldatzen da.
- 233/2014 Dekretua (pdf, 167 kb), abenduaren 16koa, Euskadiko Gazte Txartela eratzeko eta arautzeko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dena.
- 240/2002 DEKRETUA, urriaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzko Dekretua aldatzen duena.
- 406/1994 DEKRETUA, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen alojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.
- 211/1993 Dekretua, 1993ko uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onspen ofiziala arautzen duena.
- 67/2010 FORU DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseilua. Honen bidez Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan egiten diren zerbitzu eta jardueren 2011ko prezio publikoei buruzko arautegia onartzen da.
- 2007ko otsailaren 21eko Agindua, Kultura Sailburuarena, Euskadiko "Gazte-txartela / Carné joven Euro<26" banatzeari atxikitzeko araubidea ezartzen duena.

- 13/1998 Legea, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena BOE, 276.zk, azaroaren 18koa.
- 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa.

5. **Eranskinak: Elkarrizketa**

Sarrera

Egun on. Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizut elkarrizketa hau burutzeko prestutasunagatik eta hortaz, nire analisiarekin laguntzeagatik. Gizarte Langintza Graduko 3.mailako ikaslea naiz eta Gizarte Politikak irakasgairako gazte esparrua aztertzea erabaki dut. Horregatik, esparru honetan lan egiten duzun heinean, elkarrizketa honen helburua lanaren nondik norakoa azaltzea izango da.

Egun on! Eskerrak zuri nirekin harremanetan jartzeagatik horrelako lan batean laguntza emateko. Nahi duzunean, aurrera.

Galderak

Bueno, lehenik eta behin, azaldu ezazu gutxi-gora-behera zure sailean, Euskal gazteen behatokian, burutzen duzuen lana.

Ados. Orokorrean, hiru arlo daude, ikerketa, non ikerketak diseinatzen ditugun, gero ba burutu aztertu, hori argitaratu eta txostenak idatzi, hori alde batetik. Beste alde batetik, gazteekin lan egiten duten teknikarientzako edo irakasleentzako ikastaroak antolatzen ditugu, ez gazteentzat baizik eta gazteriaren arloan lan egiten duten profesionalentzat, hilean ikastaro bat, bai urtean hamabi edo hamairu inguruan. Eta hirugarren arlo nagusia, dokumentazio zentroa.

Liburutegi bat dago non Euskadiko sare publikoan dagoen eta bueno liburuak mailegutzen dira, albisteak kontsulta daitezke hemen bertan eta arduraduna egiten ditu irakurketa gidak, ateratzen ditu edo aukeratzen ditu artikulua nabarmenenak edo, eta gero dago beste pertsona bat dela web arduraduna eta horrek jartzen ditu web orrian ikerketak, artikulua, ikastaroak, ikastaroei buruzko erabakiak. Ikastaroak hemen bertan antolatzen dira eta batzuetan prentsa aurrekoak dira, eta askotan gela hau ez da guk bakarrik erabiltzen duguna baizik eta departamentuak edo gobernuak erabiltzen duena beste gai bati buruz eta prentsa aurrean. Kobida baino lehen hogeitabost pertsona sartzen ziren ikastaro bakoitzean, gau egun movida honekin izaten dira hamabi pertsonakoak, distantzia gorde behar delako eta ez dakit zer.

Kontuan izanik azaldutakoa, zein da zure lana bulegoan? Eta zer ezberdinduko luke

gainerakoen lanaz?

Ni ikerketen arduraduna naiz beste langile batekin batera. Gu biok Soziologoak gara eta orduan gu gara hemen egiten diren ikerketen arduradunak edo. Ba ordun egiten duguna da martxan ditugun ikerketen inguruko lana egin, batzuetan da datu basekin lan egitea, beste batzuetan da idaztea txostenak, grafikoak egitea, ikerketa sozialak, ikerketa berrietan pentsatzea, bueno ikerketa soziologikoen inguruko lanak. Edo beste erakunde batek eskatzen badigu justu datzu zehatz batzuk ba topatzea, ba adierazleak, adierazle sistema bat daukagu eta adierazleak eguneratzen ditugu eta bilatzen ditugu beste eremu geografikotako datuak gero komparatu ahal izateko.

Gainerakoek burutzen duten lanari dagokionean, guztiz ezberdina dela esango nuke, guk bakarrik egiten ditugu eta idazten ditugu txostenak, askotan itzuli, datu baseak guk lantzen ditugu, guk erabakitzen ditugu ikerketak eta besteen lanan, osea gu biok egoten gara asko arduradunarekin, arduradunak dena koordinatzen du baina guk hirurok asko egiten dugu lan elkarrekin ikerketetan. Besteak lan espezifikokoak egiten dituzte, klaro webgunea eramaten duen emakumeak ba web guneak lantzen du, gero liburuen joan eta etorri horretan ba hori eta gero administrariak orduan gure lana oso ezberdina da, osea elkarrekinlan egiten dugu baina gure funtzioak oso ezberdinak dira.

Orduan zenbat pertsona zaudeten Euskal gazte behatokian lanean? Eginbeharrak betetzeko nahiko dela esango zenuke ala gabeziak daude?

Sei persona gaude. Bat da arduraduna edo kordinadorea, gero Miren eta ni, hau da, nire lankidea eta biok, ikerketen arduradunak garena, gero laugarrena, dokumentazio zentruan eta liburuen maileguan lan egiten duena, bostgarrena administraria da, bueno lan lan administratiboa egiten du, ba lokalak behar dituen behar administratiboen kudeatzea eta gero seigarrenak egiten du ba web guneak eguneratu eta mantendu, orduan sei gara. Bai eta azken biak arduratzen dira ere ikastaroak antolatzeaz.

Bai, eskatzen zaigun horretarako ondo egiten dugu, moldatzen gara, hombre gehiago eskatuko bazuten ba bueno. Bolada batzutan gaude oso lampetuta hori bai ze klaro gaude egiten ikerketa bat eta eskatzen dizkigute txosten pilo bat eta gero daukagun datu basea landu barik geratzen da epe luzean, osea alde horretatik justu momentu batzutan oso estu gabiltza, beste batzuetan lasaiago. Baina nahiko multitasking gara ere bai, gauza asko goaz era berean egiten, eta egun batean ezin gara sartu bakarrik lan batean ze eskatzen digute ``joe topatu ahal duzu ez dakit zer datu`` gero zuzendariakeskatzen du beste txosten bat egitea, beti gabiltza gauza askorekin batera.

Langileekin jarraituz, ze perfil dago bertan lan egiten zure ustetan?

Lehenengoa da hori arduraduna edo, gero bi soziologo gaude ikerketetarako eta hori, gero dokumentazio zentrokoa, administrariak eta informatikariak, baina ez daukagu gizarte langilerik, klaro es que guz ez dugu behar langile sozialik, baina hona etortzen direnak

ikastaroak egiteko bai, gizarte langileak badira, gazteriaren inguruan lan egiten dutenak klaro, ez dira zertan osasun arloan lan egiten duten gizarte langileak izan behar, gazteekin erlazionatuta egon behar dira.

Beraz, behatokiak funtzionamendu egokia duela esango zenuke? Zein gabezia ikusten dituzu? Zein hobekuntza proposatuko zenituzke behatokia hobetzeko? Emaiguzu zure balorazio pertsonala.

Niretzat oso ondo funtzionatzen du, gertatzen da esandakoa, bueno batzutan gauzak aldi berean egin behar dira, baina orokorrean egin behar den guztia epean egiten dugu orduan bueno, ba gauza espezifikokoak, tratamendu estadistikorako programa hobeagoak izan ahal genituen, eguneratuagoak, baina bueno gauza oso entre comillas pribatuak dira. Lekua ya ikusten duzu dotorea da, lan egiteko espazio ona da, orduan nik hobetu, ez dakit kanpotik datorkiguna, ba denbora gehiagorekin eskatzea gauzak eta ezmomentu batetik bestera, orduan kanpoko jarduerak antolatuko balira hobeto ba guretzat hobeto.

Lan egiteko moduari dagokionean, zer prozesu/antolakuntza jarraitzen da behatokian ikerketa bat edo txosten bat egiterako momentuan? Nola eramaten dituzue aurrera zuen ikerketak? Biltzen zarete, inkesta batzuk egiten dituzue gaur egungo egoeraren berri izateko,...

Alde batetik bi estadistika ofizial ditugu, horrek esan nahi du eustatekin konpromesuek obligatzen gaituela nolabait bi ikerketa, bat bi urtero eta beste bat lau urtero egitera, hori ez da gure erabakia, horiek egiten dira, batek dauka izena Juventud Vasca lau urtero egiten dena eta beste bat Panorama de la Juventud bi urtero egiten duguna. Bueno eta hortik aurrera, batzuetan kanpotik eskatzen digute ba zuzendariak edozein arrazoai dela eta, hori eskatzen digu gai zehatz bati buruz ikertzea, eta beste batzutan guk proposatzen ditugu iruditzen zaigulako ba eguneko gauza dela. Orduan egiten dugun lehenengo gauza da inkestak bat egitea erabakitzen badugu aurretik begiratzen dugu iha beste lekuren batean edo antzeko zerbait egin den, begiratzeko ze nolako galderak egin diren ia posible den zer edo zer erabiltzea. Egiten dugu galdera sorta, egiten dugu zirriborro bat, komentatzen dugu Miren eta nik, bion artean eta gero arduradunarekin batera. Eta dena adosten dugunean kontratatu egiten da kanpoko, bueno lehenago erabaki behar da zelako ikerketa mota izango den, telefonoz egingo den inkesta etxez etxe edo, orduan egin behar da kontratu publikoa enpresa bat baino gehiago bakanburuko horretara aurkezteko, aukeratu behar da, prozedura guztia jarraituta enpresa.

Enpresak egingo du landa lana, zuk egon behar zara gainean eta konprobatu ondo dagoela eginda. Gero datu basea jasotzen denan aztertu egiten da, egiten da aurkibide bat edo eskema bat, begiratzeko zer aztertuko da eta nola, eta gero batzuetan pertsona bakar batek antolatzen du txostena edo oso andia bada ba banatzen dugu danon artean, eta pertsona bakoitza zerbait egiten du. Eta gero beti pertsona batek txosten bat egiten badu gero besteok begiratu egiten dugu, beti adosten dugu danon artean.. Behin eginda dagoenean ba jada argitaratzen dugu web orrian.

Zeren arabera hartzen da ikerketa edo txosten bat ez bultzatzen zaituzte ikerkeeta bat egitera?

Gauza batzuk enkargatzen dizkigute mas omenos a demanada, esan nahi dut behar bat dago zuzendaritzan eta enkargatzen digute, gero beste batzuk konpromisoak dira, horiek egiten ditugu entitate bategaz edo, eta beste batzuk guk erabakitzen dugu, ba adibidez gaur egun hasi gara egiten ikerketa gehiago sare sozialen inguruan, gai inportantea baita, gero eta gehiago zabaldua daudelako gazteen artean, adibidez 11.M eta guzti hori izan zenean ba horren inguruko ikerketa egin genuen. Hau da egoten gara adi nolabait gizartean gertatzen denari, ba batzuetan erabakitzeko ikerketak nolak izango diren. Baina beti eskatu behar zaio baimena zuzendaritzari, igual guk proposatzen dugu zer edo zer eta esaten digute diru nahikoa ez dagoela, eta beraz esaten dute ba ez hau nahiago dugu eta hori baztertu bakarrik bat egin ahal delako.

Baina hori badaude enkarguak, badaude konpromisokoak eta gero badekogu margen bat nahi duguna, mas o menos egiteko. Bueno eta enkarguzkoak edo konpromisokoak ikerketa onak dira, esan nahi dut. Egiten dugun inportanteena Euskadiko Gazteak da lau urtero egiten dugu baina bueno oso ikerketa inportantea da guretzat ze bueno gero hortik ateratzen da guretzat inportantea izango diren hainbat datu beste ikerketarako erabiltzen ditugunak.

Zer da aztertzen duzuen, eta ze helbururekin burutzen dituzue ikerketa hauek?

Inportantea da esatea gehienak kuantitatiboak direla eta inkesten bidez jasotzen direla. Batzuetan inkestak aurrez aurre, etxez etxe edo beste batzutan telefonoz egindakoak dira, orain hasi gara online egiten. Baina normalean hori datu kualitatiboko ikerketak izaten dira, hau da, zenbakitan jasotzen duguna. Egin izan ditugu kualitatiboak hemen egindako eztabaida taldetan baina bueno horretarikoak gutxiago. Eta gero egiten ditugu beste batzuk deitzen direla, hainbat iturrietatik datorren informazio gurera nolabait adaptatzen dugu, adibidez osasun sailak egiten duen osasunaren inguruko inkesta handi batean ba guk eskatzen diogu guri interesatzen zaiguna eta da gazteen inguruko informazioa, orduan holakoak ere egiten ditugu, ba ya eginda dauden ikerketen nolabait eskaera bat egiten dugu, horrela dohako da, gero guzk egiten dugu azterlana baina ez zaigu dirua kostatzen.

Bola de nieve teknika, gu gure artean inkesta zabaltzen hasi eta biueno zabaldu zen nolabait gazteen artean. Bidaltzen genien gazteei WhatsApp bidez, batez ere seme alabei, lagunei eta eskatzen genien ba beste gazte batzuei bidaltzea ordun ba bueno gauza zabaldu egin zen. Baina bueno hori ez da errepresentatiboa eta azkenekoan bai hartu genuen gazteen base batetik, bueno enpresa baten bitartez bidale genien korreoa guztiei, eta gero erantzun zuten ba nahi zutenak.

Orokorrean, gizarteari erreparatuz, ze ekarpen uste duzu egiten diola ikerketak eta hortaz, zure lanak gizarteari edo aztertzen duzuen arloari?

Guk egiten duguna klaro pasatzen da zuzendariari sailburuari orduan alde batetik politikakoak direnean horiek hartu ahaldituzte neurriak horren arabera, ikusi nola dagoen gazteen egoera eta erabaki ze politikak hartu, orduan alde horretatik ba balio hori dauka, eta bestetik ba gazteentzat edo gizartearentzat edo ikerlarientzat bada informazioa eukitzea, ba batzuetan ikusten dugu beste ikerketetan gure aipamena, erabiltzen dute oinarri moduan datuak aztertzeke eta bueno egunkarian agertzen denean zerbait aipatzen digute, ba bueno jakiteko nola dagoen egoera. Klaro politikak eta programak sortu aurretik, lehenag diagnostikoa nolakoa den jakin behar da jakiteko zertan eragin behar duzun, eta bueno gure papera hori da, egoera ezagutzea eta errealitatea ezagutzea, eta hortik aurrera ba diagnostikoa argi dagoela, ba edozein gaizotasun bezala, ba hasten zara neurriak hartzen, politikak diseinatzen, beraz, guretzat bada zentsuzkoa egiten duguna. Baina guz ez dugu zuzeneko kontaktua gazteekin, bueno zeharkakoa badaukagu, egiten ditugun ikastaro hauetan ba bueno langile sozialei edo formakuntza bat ematen diego eta gero langile sozialak horiek bai daude gazteekin zuzenean harremanetan, baina bueno ikerketei dagokionez gure papera da diagnostikoa eta egoeraren erretratua egitea.

Ze perfil emango zenioke zuen lanaren onuradunei?

Azkenean politikariek kontuan hartzen badute gure diagnostikoa gero politikak ezartzeko... baina nik uste dut gehien bat politika orokorrak emantzipazio orokorrerako edo enplegu planak egiteko, etxebizitza planak egiteko, adibidez gazte lagun programa, horrek ematen ditu diru laguntza batzuk etxebizitza bat alokatu nahi duten gateentzako, bueno baldintza batzuk betetzen badituzte, noski. Klaro hori nondik dator ba gazteei pisu bat alokatzea zenbat kostatzen zaion ikustean, errentak eta soldadak, soldataren ze ehuneko bideratu behar duzn ba alokatzeko ba ikesten da itzeleskoa dala eta orduan sortzen da diru laguntza hori baina dira gazteak, ez dira emigranteak. Gure gaztea gazte prototipikoa da guk gero talde txikietan arazoak bereizten ditugu, baina gure ikerketa Juventud Vasca deitzen da, hau da, gazteria orokorrena, neska edo mutil bat, unibertsitatean ikasten dagoena, edo unibertsitatea amaitu duena, ze bueno ikerketak errepresentatibitatea behar dute orretarako gure muestra gate prototipikoa izan ohi da.

Baina bueno nik esango nukena da gure ikerketen onuradunak ez direla gazteak baizik eta gazteekin lan egiten duten profesionalak (irakasleak, langile sozialak, politiken teknikariak...), baina guk ez dugu gure liburuak egiten gazte batek hartuko duela pentsatzen, baten bat egongo da baina ez da. ohikoa.

Zure ustetan, Eusko Jaurlaritzatik gazteen beharrei garrantzi nahikoa ematen die? Eta zein esango zenuke dagoela gazteriaren arloaren beharretan?

Beharraren galderari dagokionean... enplegua eta emantzipazioa.

Beste galderari erantzunez, ba gazteen zuzendaritzak ezin du neurri zehatzak edo ezin ditu neurriak hartu osea landu behar ditu enpleguko departamentuarekin, etxebizitza departamentukoekin orduan bai eman nahi zaio garrantzia baina gero, ``accion directa``

deitzen den hori ez falta zaigu orduan, azkenean beti adostu behar duzu beste batzuekin, izango bagenu ba... , hala ere askoz jende gehiago beharko genuke, azkenean lau katu gara, eta arazoa enplegua eta emantzipazioa izanda, eske arazo oso handiak dira, esan nahi dut enpleguaren hobekuntza ez da pesetekin egiten, arazoa handiak dira orduan, baina arazoa handiak dira ere bai gizartean orokorrean, esan nahi dut ez dira gazteen beharrak bakarrik.

Orduan hori izango bazituen eskumenak Eusko Jaurlaritzak benetan gauzak egiteko, baina bueno gazteen kontu honek behar ditu beste hainbat sail ere, gazteriaren zuzendaritzak behar du etxebizitza departamentua, enplegu departamentua, behar du osasun departamentua, hau da, berak bakarrik ezin ditu gauzak egin orduan egin behar duena da sotu ba bueno nolabait kolaborazioak eta guzti hori. Garrantzia, bueno garrantzia eman bai, gero beste gauza bat da zer lortzen duzun.

Orduan hobekuntza bat beharrezkoa izango zen, ``Acción directa`` izateko eskumena eta gaitasun legala, ez dakit nola esaten den.

Finantziarioari dagokionean, ze funtzionamendu duzue?

Bueno dago aurrekontu bat urtekoa izaten dena, baina ez dakit zenbat diru daukagun, uste dut izaten direla 70.000. Bueno Juventud Vasca tokatzen duen urtean ba horrekin ya gastatzen dugu aurrekontu osoa, baina bueno segun ze egiten dugun ba ikusten dugu zenbait geratzen zaigun eta pentsatu ``ba egin ditzakegu beste bi ikerketa telefonoiko edo egiten badugu kualitatibo bat eta telefoniko bat?``, baina bueno ezin dugu asko egin, hori egia da. Ez badigute ezer eskatzen guk erabakitzen dugu zenbat diru erabiliko den ikerketa batean edo bestean, eta beste kasuetan zuzendaritzarekin eta koordinadorearekin komentatzen eta adosten dugu.

Beti modu isolatuan egiten duzue lan edo ba al dago koordinazio lanik beste erakunde edo elkarteren batekin? Hala bada, ze modutan funtzionatzen duzue?

Kontratu publikoak egiten ditugu enpresekin. Kontratu publikoa hurrengo litzateke; baldintza ekonomikoak, baldintza teknikoak, egiten duzu pliego deitzen dena, or jartzen duzu ba irizpide teknikoak, azaltzen duzu nola egin behar den eta beste aldetik diru aldetik maximo bat jartzen da baina ez da jartzen minimorik orduan aurkezten da eta enpresek bidali behar dituzte proiektuak esanez nola egingo duten eta zenbat kostatuko duen. Puntuak ematen zaio gauza bakoitzari eta gero puntuatzen da bakoitza, dirua, zuk jarri dituzun baldintzak nola beteko diren eta azken horrekin egiten da balorazio bat, baina beti abokatuek hori begiratzen dute eta gainean daude, aholkuak eta irizpideak jarraitu behar ditugu klaro, eta prozedura administratiboa luzea izaten da, enpresek ere bere denbora izan behar dute proiektuak sortzeko, zuk gero beste epe bat begiratzeko zer edo zer ahazten bazaie edo ba eskatzeko berriro, gero ere igual erreklamazioa egin ahal dute, orduan azkenean gauzak asko luzatzen dira. Erakundeekin aldiz ez ditugu kontratu publikorik egiten.. Baina orain gabilta Bilboko udalarekin lan egiten adibidez, eskatzen dizkigu adierazle batzuk eta datu batzuk, beste udalekin. Barakaldotik be askotan eskatzen digute. Gero ere diputazioen bat eskatzen

dizkigu datuak Gipuzkoakoak adibidez, Gazteisko udalarekin egiten dugu lan behai, osea Euskaditik kanpo ez.

Legeen esparruari dagokionean, zeresanik daukazu (hobekuntzak, gabeziak...)?

Bueno saiatuko da beharrei erantzuna ematen, ba adibidez lehen esan duguna ``accion directa hori nolabait ba legalki ere bai eskubidea izaten zaiatuko da, hau da, gatza da zerbaitetan esku sartzea legea atzetik ez badago ze askotan posible egiten du presupuesto bat, dirua, eta bueno orduan bai legeak, lege berri hori bai ekarri beharko luke hobekuntza bat. Eske legea oinarria izango da gauza asko egin ahal izateko, eske lege barik gobernu batean, dana behar du lege bat, Kovidaren asuntu hau ere bai.

Aurreko galderaren hari beretik, politikak, programak eta planak euren beharretara egokitzen direla uste duzu?

Bai, gertatzen da lehen esan dudana arazo larriena enplegua eta emantziazioa bada ba bai egiten direla eta udal mailan ere egiten dira enplegu programak eta planak eta baina ez da hain erraza lanak sortzea ekonomiak lana sortzen ez badu, edo ez da hain erraza alokailuen prezioari limite bat jartzea, badakizu Podemosek egiten hari dana Madrilen eta dana, alokailuaren prezio maximoa jartzea, eta gauza horiek egiteko asmoa badaukazu ere gatza da orduan gazteen inguruko, zer gertatzen da, ba gazteek dituzten arazoak ba bueno arazo inportanteak direla, ez da si tienen WiFi o no, hori oso erraza izango zen, orduan, bai nik uste dut saihatzen direla ondo diseinatzen edo, klaro gero behar duzu diru asko hor gauzetan sartzeko eta dirua ba bueno ez da hainbete egoten. Koordinazio gehiago beharko zen gobernu, diputazio eta udalen artean, baina legeak hori bultzatuko du nolabait. Bueno nik esango nuke baietz egokitzen direla klaro gero milagros pues...

Amaiera

Bueno, ba berriz ere eskerrak eman nahi dizkizut nire lanari egindako ekarpen interesgarriatik.

Eskerrak zuri, hurregora arte.